



Herriko bestak

Arano, Elgorriaga,
Elizondo eta Ituren

LANA → 20

Langabeen erdia baino
gehiago prestaziorik gabe

BERTIZ → 27

Artzainen bizitza biltzen
duen erakusketa ikusgai

ARESO → 35

24 etxebizitza egiteko
baimena jaso du Udalak

SENPERE → 42

Errugbi taldea ohorezko
promozio txapeladun



Haurren gizentasuna: mundu mailako osasun arazo larria

Urtetik urtera indarra hartzen ari den gaixotasuna da haurren gehiegizko pisua. Nafarroako egin den azken ikerketaren arabera, gure eskualdea haur obeso kopuru haundiena duen eremuen artean dago. Tratamendurik onena gizentasuna saihestea dela diote adituek, elikadura egokiarekin eta ariketa fisikoa eginez.

ERREPORTAJEA → 4-5

Hasier LARRETXEAK GORTARI | Arraiozko idazlea

«Iraganarekin eta hein batean, Baztanekin baketzeko balio izan dit liburuak»

«Kronika sentimental baten kontakizun» gisa aurkeztu digu Hasier Larretxeak bere azken liburua: *Larremotzetik*. Gauza intimoak kontatzera ausartu da, eta liburua idatzita lasaia gelditu dela aitortu digu: «iraganarekin elkarriketa bat izan da eta leinuaren zama kitatzeko modua».

ELKARRIZKETA → 3

ZOKKETAK → 52



ttipi txartela eginez gero 2 liburu opari

Txartela egiteko deitu
948 635 458 telefonora

LIDERRAK GURE ESKUALDEAN

eta baita azterketa
egiterakoan CIESeK

Nafarroa Garaiko mendialdean

hartu duen 111 udalerrien
eremuan ere



ttipi-ttapa

Ttipi-Ttapa^{rekin} zure iragarkiak
eragin haundiagoa du

TTIPI-TTAPA
28.000 irakurle

- D. NOTICIAS 17.000 irakurle
- D. NAVARRA 11.000 irakurle
- GARA 9.000 irakurle
- MARCA 4.000 irakurle
- BERRIA 2.000 irakurle
- EL PAIS 1.000 irakurle
- EL MUNDO 1.000 irakurle
- BESTE BATZUK 8.000 irakurle

Sexuaren arabera

GIZONAK %40,20
EMAKUMEAK %59,80

Adinaren arabera

14-24 urte %13,50
25-34 urte %16,70
35-44 urte %18,50
45-54 urte %21,30
55-64 urte %11,80
+ 64 urte %18,20

Ikasketa mailaren arabera

IKASKETARIK GABE %4,90
LEHEN IKASKETAK %9,80
LANBIDE HEZIKETA %24,30
BATXILERGOA %34,60
UNIBERTSITATEA %26,50

Data iturria:
CIES 2014ko 1. neurketa



Azken zortzi urteotan Madrilen bizi da Hasier Larretxea Gortari (Arraioz, 1982), eta erran digunez, gustura. Duela gutti, ordea, Euskal Herrian izan da bere azken liburua aurkezte-

ko: *Larremotzetik* (Erein). Gauza intimoak kontatzera ausartu da, eta Hasierrek berak aitortu digu «kronika sentimental baten kontakizuna» izan dela. «Leinuaren zama kitatzeko

modua» ere badela gaineratu digu, eta aldi berean, «iraganarekin eta hein batean, Baztanekin baketzeko» balio izan diola. Martxoan zendu zitzaion amatxi Leonitari eskaini dio.

Hasier LARRETXEA GORTARI | Arraiozko idazlea

«Inoiz bizkarreratu dudan harririk pisutsuena izan da liburu hau»

G. PIKABEA | ARRAIOZ-MADRIL

Zergatik idatzi duzu liburu?

Abiapuntua amatxi Leonita izan zen. Amatxi garai bateko istorioak kontatzeko trebezia baino, argitasuna izaten zuen, ez zuen gaur egungo kontuei buruz ilusiorik, baina garai bateko base-ri inguruko gertaera, ohitura eta kontakizunen inguruko mamia izaten zuen. Bere etxera joan eta grabazioak osatzen hasi nintzen, baina hasiera hartan liburu idazteko asmorik gabe. Herriari atxikitutako amatxiren istorio zaharrak izan ziren liburu idazteko abiapuntua eta horregatik eskaini diot berari. Baina liburu ez da garai bateko usadioei buruz bakarrik ari. Album familiar baten gisa ere egin dut, ausentziak eta presentziak ageri dira, eta galdemodu aunitz era bai, zenbait gertakari latzen inguruan kusionamendu bat ere badago. Niregandik espero zenaz ere ari naiz. Ttikitatik aizkora eta harria goititzen nituen aitaren irakaspenaren ondorioz. Ez naiz aizkolari edo harri-jasotzaile fina izan, eta alde horretatik liburu nire aita eta irakatsitakoa omentzeko modua ere bada, baina ez aizkoraren bitartez, literatura-ren bitartez baizik.

Begientzat ederra bezain pertsona sentsibleentzat gordina den inguruan jaiotakoa za-



ARGAZKIA: PEDRO MARTINS

Hasier Larretxea *Larremotzetik* bere azken liburua esku artean duela.

rela dio editoreak...

Sakonean, norberaren bilaketa pertsonalaren eta norbera onartzearen eta inguruak onartzearen ariketa sakona da, eta nerabezaroko argilunak ere ageri dira. Liburuaren intentsitate handia dago eta hainbatetan zuzenean zuzendu narrazio herri bizi izan dituzdan gertaerei. Aipamen eta pentsamendu batzuk ere biltzen ditut, gaur egun ere ume baten garapen osoan eragin dezaketenak. Ariketa pertsonal handia da, gogorra eta nire aldetik ausarta, nire identitatea agertzen dudalako. Nire tokia aurkitzeko beharra badago eta hor kokatu behar dira Madril eta asebate ez

IZENBURUAREN ZERGATIA

«*Larremotzetik* liburuaren izenburua aitari egindako omenaldi zuzena da, berak larremotzekoa dela erraten baitu. Larrea testu batzuetan parajea ere bada eta testu motzak dira. Hitz indartsua eta esanguratsua iruditu zitzaidan, eskualdeko nekazari jende umilen taupadak bildu ahal izateko».

BAZTANEKIN HARREMANA

«Deskantsuzera eta lasaitzera hurbiltzen naiz. Hiriko bizimodua gogorra zaidanean indarrak hartzeko baliagarri zait»

ninduen ingurune bat. Bidaia luzea eta sakona eginga naiz eta liburu hori islatzen da.

Gauza intimoak kontatzera ausartu zara...

Familiaren nondik norakoak kontatzen ditudalako kezka ere banuen, baina ez inondik inora arinkeriatik edo sentsazionalismotik begiratuta. Proposamen serio eta trinkotik eginga dago. Kontu kitatzeko ariketa bat baino, kronika sentimental baten kontakizuna da liburu, edozein haranetako edozein familiaren istorioa izan zitekeena. Bakoitzaren ongizatearen aldeko aldarria ere bada liburu.

Liburu idatzita lasaia-go gelditu zara?

Bai, iraganarekin edo hein batean Baztanekin baketzeko modua izan da. Mingarria izan daiteke, baina ez dut nahia egin. Bakoitzak bere munduan tokia aurkitzeko zailtasun eta gertakari horiek ere hor dauka. Prozesu sakona izan da, batzuetan gogor samarra. Iraganarekin elkarrizketa bat izan da eta leinuaren zama kitatzeko modua. Gaztetan nire abizenak pisu handia zuten, niregandik berzte zerbait espero zen eta horrek ez ninduen nire izaten uzten. Liburu bizkarreratu dudan harririk pisutsuena izan da, baina jauzi egin eta bota dut. Baketze eta baretze ariketa bat izan da. Iraganeko korapilo edo une latz eta goibelak hortxe daude, baina pozik nago liburuaren ibilbidearekin. **Duela zortzi urte Madrilera joan zen Hasier hura eta oraingoa zertan aldatu dira?** Gauza aunitzetan. Baztanen bizi nintzenez, ez nuen gaur egun daukadan barne baretasunik eta lasaitasunik lortu nire buruarekin. Zenbait gainera inguruan adierazteko beharra nuen, baina nire baitarako baino, kanporako bizi nintzen, hein batean errenka. Orain, zentzu guztietan, askeago naiz. Hutsetik hastea gogorra izanda ere, gure baitan daude aldatketak eta hobetze prozesuak.

GIZARTEA → GEHIEGIZKO PISUA HAURRETAN

Obesitatea: XXI. mendeko gaixotasuna

Adituen ustez, ttikitatik elikadura egokia eta ariketa fisikoa egitea ezinbertzekoak dira

Nafarroako mendialdean haurren gizentasun indizea handiagoa dela diote ikerketek. Lesaka, Leitza, Doneztebe eta Elizondoko pediatria

zerbitzuetatik pasatu diren haurrak multzo horretan sartuak daude.

G. PIKABEA

Milaka haur hiltzen dira egunean desnutrizioagatik, eta aldi berean, urtetik urtera nabarmen igotzen ari da gehiegizko pisua duten haurren kopurua. Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolaketaren berri eman dituen datuen arabera, munduko herrialde gehienetan hazi egin da obesitate kopurua azken bortz urteotan, eta epidemia hitza ere aipatu du. Osasunerako Mundu Erakundeak, beriz, XXI. mendeko epidemia gisa definitu izan du obesitatea.

Nafarroan, haurren historia klinikoak aztertuz, pisuaren gainean egin den azken ikerketak dio, 15 urtetik behekoetan %28k gehiegi pisa-

tzen duela, horietatik 19,9k gehiegizko pisua duela eta 8,1 obesoa dela. Eta eskualdean datuak ez dira hobeak. Izan ere, ikerketa horrek berak ondorioztatu du Nafarroako mendialdean daudela haur obesoa gehien: Lesaka, Doneztebe, Leitza eta Elizondoko pediatria zerbitzuetatik pasatu diren 0 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoak multzo horretan sartuak daude. Konparazio batera, Lesakako pediatria zerbitzuko haurren %23k gehiegizko pisua du, %11,5ek obesitatea, %65 normaltasunaren barrenean daude eta %0,5 meharrik dira.

PREBENTZIO LANA

Behin baino gehiagotan


KOPURU HAUNDIA

«Bertze toki batzuetan obesitatea gaizki jatearekin lotuta dago, baina hemen ez. Hemen aunitz jaten da»

Belen COMPAINS eta M^a Jesus ETXEBERRIA
Pediatria eta erizaina

jakinarazi izan dute gizentasuna ez dela itxura estetikoari dagokion kontu soila. Hori baino harago doala. Hortaz, gaiari zenbat eta lehenagotik heldu, orduan eta hobe. Lesakako Osasun Zentroko pediatria zerbitzuan, erraterako, ohiko azterketa medikueta kontrolatzen dituzte haurren altuera eta pisua. Eta beharrezko arabera, programak abian paratzen dituztela azaldu digute Belen Compains pediatriketa eta Maria Jesus Etxeberria erizain pediatrikoak: «gehiegizko pisua duten kasuekin ahal duguna egiten saiatzen gara, baina denekin jarraipen programa bat egitera ez gara ailegatzen». Hala ere, beti izaten dute obesitatearen plana martxan.

Bularra ematearen garrantziaren berri ere ematen diete gurasoei Compainsek eta Etxeberriak:



ITURRIA: OSASUNBIDEAREN LEHEN MAILAKO ARRETA ZERBITZUAREN ARDURAEAN MANUELA SANCHEZ ETXENIKE PEDIATRAK EGINDAKO IKERKETA.

«amaren esneak patologia batzuk prebenitzen laguntzen baitu». Eta honetan datu onak dira eskualdean: Bortziriak eta Baztango haur gehienak lehenbiziko sei hilabeteetan amaren esnearekin bakarrik elikatzen dira.

Estatu espainiarrean indarrean dagoen Nutrizioaren, Ariketa Fisikoa eta Obesitatearen Prebentzioaren aldeko Naos Estrategia ere lantzen dute. «Naos estrategiaren arabera, obesitatea arazo globala da eta ezin zaio osasun sailetik bakarrik aurre egin: osasungintzatik, hezkuntzatik, medio sozialetatik... landu behar da, baliabide guztiak aprobetxatuz».

Lesakako Osasun Zentroko pediatria zerbitzuan, eskolako jantokiak jarri dute arreta eta jangelen ikerketa deskriptiboa egiteko datuak bilatzen ari dira: «duela hamar bat urte elikaduraren inguruko makrojardunaldi batzuk egin genituen eta ondotik, bertze jardunaldi tikiagoak ere egin

genituen bi urtez. Horietan eskolako jantokiak aztergai izan ziren, eskolako menuen gaia ez baitago konpondua. Hutsune legal handia dago, ez da inor arduratzen zuzenean horretaz. Jardunaldi horietatik abiatuta, jantokietarako menuak egin genituen». Osasun Siletik bertze programak batzuketan direla ere kontatu digute: «Europako Batasuneko diruarekin hamaiketako osasuntsua programa martxan dago eta Haur Hezkuntzakoei fruta bidaltzen diete». Beraien irudiko, «kanpaina aunitz egin dira Naos estrategiaren baitan ere, baita gosariarekin ere». Baina Compainsek eta Etxeberriak garbi dute «bazkaria dela erregulatu behar harko litzatekeena, hori delako garrantzitsua».

ONGI JAN, BAINA AUNITZ

Compains eta Etxeberriaren hitzetan, «gehiegizko pisua dutenen indizea altua da hemen,



Belen Compains eta Maria Jesus Etxeberria, Lesakako Osasun Zentroko pediatria eta erizain pediatrikoak.

baina hala ere, ongi jaten da. Bertze herrialde eta toki batzuetan, obesitatea gaizki jatearekin lotuta dago, baina hemen ez. Hemen haurrak ez du litxarreriarik jaten, baina kopuruari dagokionez, aunitz jaten du».

Hortaz aparte, ariketa fisikoaren garrantzia ere azpimarratu dute, aunitz jateaz gain, sedentaris-moa ere hemengo haurren arazoa dela uste baitute pediatrik eta erizainak: «landa eremuan haurra mugiaraztea erraza dirudi, baina hemen euri aunitz egiten du eta etxeak hagitz haundiak dira. Ez bada hori aldatzen, udazken eta neguan, haurrak sofán gelditzen dira, lehen telebista aitzinean eta orain bideojokoetan». Kirol eskaintza duela urte batzuk murrizta zela ere gaineratu digute: «orain dela 15-20 urte hemen zegoen kirol aukerak pilota eta futbola ziren mutilentzat eta neskontzat jarduerak pun-


tual batzuk baino ez. Gaur egun aukera gehiago sortu dira. Argi izan behar dugu obesitateari aurre egiteko modu bat jendea mugiaraztea dela».

Baina badira bertzelako faktoreak ere: klimaren ondorioz, gure eskualdea alergía eremua dela, adibidez. Asmaren kasua da hori: «biztanleriaren %10ek asma du eta horrek ariketa fisikoa egiterakoan eragina du. Asma duen batek esfortzu bikoitza egin behar du».

HELDUAROAN ERE ARRISKU BERA

Haurretan pisu handiegia dutenak etorkizunean ere arrisku hori dutela ohartarazi digute: «haurretan obesoa dena heldua denean ere obesoa izanen da kasurik gehienetan. Hartzen diren ohi-turak kentzea zaila da eta haur batek ez du ongi jaten bere etxean ez bada ongi jaten».

Pisu altuegia izatearen ondorioz ere aritu



ITURRIA: OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEA

Pisu egokia den ala gehiegizkoa den jakiteko Gorputz Masaren Indizea (GMI) hartzen da kontuan, adinaren arabera. Indize hori kalkulatzeko eragiketa hau egin behar da: pisua (kilotan) zati altuera ber bi (metrotan). Adibidez: 20 kiloko pisua eta 1,09 metroko altuera dituen 5 urteko haur baten indizea hau da: $GMI = 20 / 1,09 \times 1,09 = 16,83$.

zaizkigu: «gehiiegizko pisuak artikulazioak hondatzen ditu, eta kolesterola, hipotiroidismoa, arazo kardiobasularrak eta diabetesa sortu». Horren aitzinean, tratamendurik egokiena kirola egitea eta dieta kontrolatzea direla

diote, bertzela, haurra zirkulu itxi batean sartuko delako: «bertzeak baino lodiago denak ez du bertzeek adina lasterka egiten, ezin duelako. Horrela, ez diote baloia pasako eta ez badiote pasatzen ez da jokatzera joanen.

Ez bada jokatzera joanen zer egingen du? Bada jarri eta palmera bat jan. Zirkulu itxi bat da eta hori hautsi egin behar da. Egoera horretara ailegatu behar da eta hori tiki-ttikitatik egin behar da».

DIETISTAREN AHOLKUA

Amaia MEOKI PLAZA | Elizondoko On Egin Herbedietetika eta Ekodendako dietista

«Ez du balio haurrari bizikletan ibiltzera joateko errateak gu sofán edo etxean gelditzen garen bitartean»

«Haur eta nerabeen gehiegizko pisua eta loditasuna osasun publikoan dagoen arazorik zail eta garrantzitsuenetarikoa bat da. Ez bakarrik azkeneko urteotan modu adierazgarri batean haunditu delako, baita haurraren gehiegizko pisua nerabezaroon eta helduaroan mantentzeko joera dagoelako ere». Halaxe adierazi digu Amaia Meoki dietistak.

2010ean egin zuen *Haurrak Mugimenduan* ikastaroa eta programa horretan oinarritzen da Elizondoko kontsultatik pasatzen zaizkion gero eta haur gehiagoren loditasuna lantzeko. Helburua «loditasuna bultzatzen duten bizi eta elikadura ohi-turak aldatzea» dela erran digu, eta hori ariketa eta jokoen bidez egiten du: «haurrak elikagai desberdinekin ohi-tu daitezten, ariketa fisikoa egitearen garrantzia ikas dezaten eta inplikatu daitezten. Baita guraso edo zaintzaileak ere». Izan ere, Meokik denek kolaboratzearen garrantzia azpimarratu du: «hau-

rrei bizi ohi-tura egokiak zein diren erakutsi behar diegu. Bai osasun publikotik, bai eskoletatik eta garrantzitsuena, bai etxetik ere. Familiako guztiek inplikatu behar dute. Ez du balio haurrari bizikletan ibiltzera joateko errateak gu sofán edo etxean gelditzen garen bitartean, edo loditasun arazoa duen haurrari janari desberdinak prestatzea... Haurrek ingurukoengandik ikasten dute nola elikatu eta aktiboak izaten ala ez. Haurtzaroon ikasten diren ohi-turak helduaroan mantentzeko aukera aunitz daude».

EGOERA LARRIA

«Haur eta nerabeen gehiegizko pisua osasun publikoan dagoen arazorik garrantzitsuenetarikoa bat da»

Egoera «larria» da Meokiren ustez, eta «elikadura ohi-turetan aldaketak, ariketa fisikoa bultzatzea eta laguntza emozionala



Amaia Meoki Elizondoko dietista.

dira loditasunaren tratamenduko eta prebentziorako oinarri sendoenak helduaroan eta haurtzaroon. Gainera, haurtzaroon faktore bat gehitu behar zaio: giro familiarra».

Bere irudiko, «herrietan hirietan baino hobeki jaten da, baina hala ere, okerrera goaz. Haur aunitz dira gosalduta gabe eskolara joaten direnak eta litxarrerria aunitz jaten dituztenak. Gainera, gero eta sedentarioagoak dira. Hirietan herrietan baino gutiago mugitzen dira, baina herrietan ere geroz eta gehiago ikusten da joera hori. Kontuz ibili behar dugu haurrek telebista edo ordenagailu aitzinean, bideojokoekin... denbora gehiegi pasa ez dezaten. Kanpoan egon behar dute: bizikletan, baloia-ekin... jolasten».



Nire txanda
Koro IRAZOKI

Azken momentuak

Bizitzeko momentu gogorrena, bizitza bukatzen denekoa izaten da. Diote, sortzeko momentua ere zaila izaten dela, eta horregatik negarrez sortzen garela. Hiltzeko momentuan ez dugu negarrik egiten, eta behar bada, hiltzen ari denak ez du uste dugun bezain bat sofrizten, baina dudarik gabe, familiarendako, bizipen latza izaten da.

Gure gizartean heriotza modu traumatikoan bizitzen dugu, eta pertsona bat hiltzen denean, gertatzen ahal zaion txarrena dela pentsatzen dugu. Baina ez da beti hala izaten, eta batzuetan, heriotza deskantsua eta askatasuna da. Bizi kalitatea larria denean, eta batez ere esperantzarik gabe dagoen gorputz batentzat, hoberena "bertze aldera" pasatzeko bidea errextea da.

Aitzineko egun horietan, Baionako ospitaleko sendagile bat epaitua izan da, arras eri ziren batzuk bide horretan lagundu izanagatik. Zorionez, errugabea ikusi dute, eta libre gelditu da. Honi buruz, Joan Mari Torrealdai idazleak, hau idatzi zuen: «Heriotzaren etxe ona, gaur egun frantsesez idazten da: *le bonne maison*». Aipatutako mediku horrek Bonemaison du izena.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Altza Felipe trulalari (2)

Gure aszensorean denentzako lekua bada, erran du adeitsu nagusi berriak. Pilar haurdunak eta Santiago mainguk gustura hartu dute *gonbitea*. Baina kirol pixko bat egiteko eskailerak oinez igotzeko asmoa duen Jordik, klaustrofobia duen Mikelek eta igo baino jautsi nahi duen Maruxak bertze aldera begiratu dutenean, seguridakoak goxo-goxo bulkaka sartu ditu igogailuan.

Nabarmentzekoak



Antonio ITURRIA
Liburua aitaren izenean

Memorias de guerra liburu argitara eman du lesakarrak Gernika Fundazioaren eskutik. Gernika eta Durangoko bonbardaketetan leku izan zen Joxe aitaren testigantzak bildu ditu.



ENDIKA Urrutia
Dena irabazi du ekainean

Aurrelari izateari utzi eta atzelari moduan hasi zenetik progresio handia egin du saldiastarrak eta ekainean jokatu dituen partida guziak irabazi ditu. Hilabeteko onena izan da B multzoan.



Xabier PERURENA
Luzemetraia aurkeztu du

Parle vu euskara bere lehen film luzea herri-tarrei erakutsi nahi izan die lehenik. Ekaineko azken asteburuan egin dako bi emanaldietan jendez gainezka izan zen Leitzako zinema.

Atzera begira → 2004-VII-15 / TTIPI-TTAPA 378 zk.



Fernando Ballarena, Elizondoko ONCEko boleto saltzailearekin

«Eskurik gabe baldin bada ere bizimodu normala egiten dut». Hala erran zigun duela hamar urte Fernando Ballarena, ONCEko boleto saltzaile elizondarrak. 17 urterekin teilatu batean lanean ari zela, gerrako bonba lehertu zitzaion eta bi eskuak galdu zituen, baina familia eta lagunuen animoek, bizimodua eskurik gabe egitea posible zela erakutsi diote. «Ez dut problema handirik jateko, beztitzeko, hor barna ibiltzeko, lanean aritzeko... nik zer dakit, baserrian, traktorearekin, belarretan... mila gauzatan aritzen naiz lasai ederrean», zioen. Salmentari dagokionez, «lehenago gehiago saltzen zen, baina jendea aspertu egiten da».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria40€	Europa59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka34€
Ipar Euskal Herria59,50€	Amerika eta Australia124€	Leitza17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Eman behar da?

Pello APEZETXEA

Jende aunitz pobretzen ari omen da. Soldatak ttikitzen, etxebizitarik gabe gelditzen, haurrentzat ere jatekoa eskasten. Azkenaldiko berrietan, hauxe da bat, ikastetxeetako jantokiak udan haurrentzat irekiak edukitzea. Gure hurbilean, lehen ez bezala, janari biltegiak eta jantokiak plantatzen ari dira, hiri handietan batez ere, eguneroko otordua jendeari eskaintzeko, adineko eta ez adineko jendeari. Izan ere, beharrean daudenak ugaritu ahala, laguntza ere gehiago plantatu beharra ikusten baita.

Baina, egokia da jokaera hori? Laguntzarena alegia? Batzuen ustez ez, behintzat. Hemen norberak saiatu eta moldatu behar duela erraten dute. Eta badela hainbat jende lasaikerian eta alferkerian bizi dena. Behar bada, arrazoi horrek ere eragin du plantatzen diren eskeetan erantzun murrizak izateko. Edo eta, beharbada, laguntza biltzaileez ez dira fidatzen. Izan ere, zoaz jakitera, diote, biltzen dena nora joanen den.

Dena den, ez dugu ukatzen ahal behartsuak, gehiago edo gutiago, beti izanen direla, adin handia edo osasun txarragatik batzuetan, ustegabe ko eta nahigabeko egoerak gertatzen direlako, berteetan. Ez baita jende guztia bere buruz baliatzen ahal denerako. Eta arriskua bada batzuk, edo aunitz, beren borondate eskasa estaltzeko aitzakiak adierazten aritzekoa. Bertze aldetik, hori bai, ez laguntzeko arrazoiak ematen ari garen hainbat jende berteek egiten dutenaz aski lasai probetzen gara.

Azkeneko TTIPI-TTAPAN, boluntarioei buruzko idatzia etorri da, adineko, eri, ezindu eta bakarrik bizi direnei modu batera edo bertze laguntzen aritzen diren jendeez, alegia. Ez dut uste hori aisa gaitzesten ahal denik, baina laudatu bai. Nola ez, bada, laudatu borondate hutsez egiten den gauza bat?.

Hartu eta eman, elkarrengandik hartu eta elkarri eman. Jendarteko funtsezko arau bat dela iduritzen zait hau. Gaur egun hainbertze aipatzen den kalitatezko bizimoduak eskatzen duena. Pentsamolde eta jokamolde berekoiak giroa zaildu eta desatsegina bihurtzen duela edozein ohartzen ahal da.

«Hartu eta eman, elkarrengandik hartu eta elkarri eman. Jendarteko funtsezko arau bat dela iduritzen zait hau. Gaur egun hainbertze aipatzen den kalitatezko bizimoduak eskatzen duena»

Munduko Kopa, heldu den urtean

Mikel TABERNA IRAZOKI «Kapi»

Gure aita zenak 1950eko munduko futbol kopako partiduak aditzeko erosi zuen bere lehenbiziko irratia. Orduan ere Brasilen jokatu zen, eta Uruguai irabazi zuen finala. Aita aisa emozionatzen zen, eta bihotza saltoka hasi izanen zitzaion, aparatu berriari beharria iratsita, Telmo Zarrak Ingalaterrari gola sartu ziolarik, konparazio batera. Nik bederatzi urte nituela izan zen Ingalaterrako munduko kopa, 1966an. Etxera telebista ekarri berria zen, eta pantailan ikusi genituen mundial hartako iduriak. Gogoan dut Espainiako Sanchisek nolako gola sartu zion Suitzari, zelai osoa bururen buru korritu ondotik. Oroitzen naiz txapeldun izanen zen Alemaniako Helmut Haller kasahoriaz, nolako sasoia zuen, buruz inork ezin kendu baloia hari. Aurten, alegeratu naiz Espainia etxerat bidali dutela jakinik, horrela agintariez ez baitute baloi borobila ibiliko gure errealtate beltza tapatzeko: langabezia, ustelkeria, errege familiaren negozio zikinak. Aldi berean, pena pixka bat hartu dut Uruguarekin, aurten ere haiek irabaztea nahi nuelakoz, han ditugun jendakiengatik eta orain duten Gobernuako presidentearengatik, ez baitu ez François Hollanderen ezta, are guttiago, Mariano Rajoyren batere antzik. Lerro hauek idazten ari naizen tenorean, Frantziak aitzinera segitzen du, eta entrenatzailea baionarra dute, Deschamps, baina ez dit halako berorik ematen; Euskal

«Heldu den urtean ere izanen da munduko futbol kopa, Kanadan arituko baitira emakumeen selekzioak. Ez dakit Euskadik edo Euskal Herriak parte hartuko duen, baina badut esperantza gure hurbileko norbait ariko dela, bertze kamisetarekin bada ere»

Herriaren izenean ariko balitz nahiago. Hain zuzen ere, joan den maiatzean aritu zen Euskadiko futbol selekzioa, Irlandaren kontra, eta irabazi egin zuten, gailendu ginen. Eta bertan bidasotar bat aritu zen: Ane Bergara, Donostiako Errealeko jokalaria fina. Ane lehenago Gure Txokoan aritu zen, baina orain nesken talde nagusirik ez Bortzirietan; Donezteben bai, Ttipi Ttaparen eskualdeko talde bakarra; zerbait ere egin beharko da. Heldu den urtean ere izanen da munduko futbol kopa, Kanadan arituko baitira emakumeen selekzioak. Ez dakit Euskadik edo Euskal Herriak parte hartuko duen (hori ere ikusiko dugu noizbait ere), baina badut esperantza gure hurbileko norbait ariko dela, bertze kamisetarekin bada ere. Orduan bai, gure aita aspaldi bezala, ni ere beharriak eta begiak erne jokalariei begira.

Irakurleak mintzo

Enaitzen
familiaren
eskertza

Nagore ARRETXEA (Enaitzen ama, familiaren izenean)

Enaitz 2009ko ekainerako jaiotzea espero genuen ilusio eta zoriontasun handiz etxeok guztiok. Baina 2009ko martxoaren 31n amaren barrenetik ateri behar izan zuten larri, bai Enaitzek, baita bere amak ere, hiltzeko arrisku handia baitzuten.

Ilusioz betetako proiektua erabat aldatu egin zitzaigun eta modu polit batera pentsatu genuen istorioa guztiz zapuztua gelditu zen.

Hasierako bi hilabeteak inkubagailuan pasatu behar izan zituen infekzioei kontra egiten eta bizitzari atxikitzen, eta behin pisu eta tamaina egokia lortu zuenean, etxera joateko baimena eman zioten. Etxerat etorrira, Enaitzen erantzunak desegokiak zirela ohartuta koan, medikuak frogak egiten hasi ziren. Egunak pasatu ahala, berri txarrak ailegatzen hasi ziren. Lehenengo bi urteak, inori opa ez dizkiogun urteak izan ziren. Alde bateatik, Enaitz ez zegoen gustura (egun osoa negarrez ematen zuen) eta bertetik, medikuek beti ere zerbait berria ikusten zuten (oxigeno gabeziaren ondorio txarrak).

Diagnostikoa eman zigitenean, mundua bertan akabaten zela iruditu zitzaigun, baina garai hagitz txarren ondotik, aitzinerat begiratzen ikas-

ten da. Gaur egun, bada-kigu Enaitzek garun paralisia duela eta hasieran pentsatuak genituen proiektuak aldatu eta proiektu berriak ilusioz eraikitzen hasiak gara. Gainera, Enaitz zorientzua da eta bizitzeko ilusio handia du eta horrek indar izugarria ematen digu.

Malda neketsu eta gogorrez betetako bidea izan arren, buru-belarri lanean jarraitzen dugu Enaitzek ahalik eta bizikaltate hoberena eta autonomia handiena izateko. Baina Enaitzen bizibaldintzak hobetzeak osak balio ditu. Horregatik hasi ginen tapoien proiektuarekin eta nahiz eta ekonomikoki irabazi handirik ez izan, ekimenarekin hasteak jendearen borondatea eta hurbiltasuna zein handiak diren erakutsi zigun eta zerbaitek urrea balio baldin badu, jendearen ELKARTASUNA da, hori guztia ez baita diruarekin ordaintzen ahal.

Nola eskertu Enaitz gara guraso taldekoek egindako lana? Beraiegiatik ez balitz, martxan jarri dituzten proiektu aunitz ez lirakeke aitzinera ateriko. Beraiei esker, ikusi dugu jendeak laguntzeko gogoia duela; jendeak krisi garaia izan arren, bihotza taupaka duela eta elkar laguntzeko prest dagoela; ez gaudela bakarrik.

Hitz eta lerro hauen guztien bidez, Enaitzek eta bere familiak eskerak eman nahi dizkizue modu batera edo bertara parte hartu duzuen guztiei. Aunitz zarete lagundu diguzuenak. Eskerrak eman gisa bere-



Bota bertsoa

Maddalen LOPEZ TAPIA • Doinua: Haizak hi mutil mainontzi
Baztan-Bidasoko XXVII. bertso paper lehiaketan 1. saria (15-18 urte)

LOMCE

- | | |
|---|---|
| <p>1. Bost letraren esanahia ikaslegoan etsaia Espainiako Gobernuaren reforma lasaia hezkuntza on baten nahia lortzen behar dugu saia eskubideak defendatzeko heldu da garaia.</p> <p>2. Egoera dugu grabe indartsu gaude halare ikasleria baita betitik hezkuntzaren jabe hasi gaitezen suabe eskubide denen alde ez baitaukagu deus egiterik borrokarik gabe.</p> | <p>3. Euskara ez da garatuko artea dute kenduko erlijioa azkar dutela klasetan sartuko Wert-en aginduei uko ez gaitu engainatuko ikasleria ez baitu inoiz inork garaituko.</p> <p>4. Nahiz bagenun esperantza okertu zaigu balantza eta legea aurrera doa egun bere kasa baina gazteria altxa kenduaz hainbat zalantza aizu ikasle altxatu zaitez hasi da iraultza!</p> |
|---|---|

an, egin diguzuen harre-ragatik, eman diguzuen elkartasunagatik eta eskainitako denbora guztia-gatik. Zuei esker, Enaitz-ekurte oso baterako erre-habilitazioa finantzatzea lortu du, eta horrekin, be-re bizi kalitatea hobetzen saiatuko gara eta bere zoriontasunagatik jarraituko dugu lanean.

Bihotz-bihotzez, mila esker!!!

Saharaztanen
zenbaki sarituak

Saharaztan Elkartea

Saharako haurrak ekartzeko laguntza gisara zozketa egin du Saharaztanek. Zenbaki saritu bakoitzak bi pertsonentzako otordua izanen du jatetxe hauetako batean:

1. BEOLA (ALMANDOZ)	3301
2. ATERPE (ARANTZA)	0420
3. PABLOENEA (ARANTZA)	3796
4. ORDOKI ERRETEGIA (ARIZKUN)	3832
5. BIXTA-EDER (ARIZKUN)	0656
6. BEINTZAKO OSTATUA (BEINTZA)	2986
7. ERREKALDE (BERA)	2000
8. XUGA (BERA)	2408
9. ZALAIN (BERA)	0479
10. HERRIKO OSTATUA (DONAMARIA)	0964
11. DONAMARIAKO BENTA (DONAMARIA)	1101
12. IRATXO (DONAMARIA)	0592
13. BELARRA (DONEZTEBE)	2193
14. ELBETEKO POSADA (ELBETE)	3101
15. HILARION (ELGORRIAGA)	2953
16. GALARZA (ELIZONDO)	3579
17. ESKISAROI (ELIZONDO)	2413
18. ITZALARGIKOBORDA (ELIZONDO)	2762
19. KASTONEA (ERRATZU)	3173
20. ELUTSA (ETXALAR)	0762
21. FRANSENE (GARTZAIN)	0884
22. LA VILLA (IGANTZI)	3710
23. ALTXUNEA ERRETEGIA (ITUREN)	1688
24. TRESANEA (ITUREN)	0109
25. HERRIKO OSTATUA (ITUREN)	1213
26. AURTIZKO OSTATUA (ITUREN)	2949
27. KATTALIN (LEGASA)	1416
28. LARRALDEA sagardotegia (LEKAROZ)	2151
29. ETXEBERTZEKOBORDA (LEKAROZ)	3958
30. BERAU (LESAKA)	1551
31. LINDDURRENBORDA sagardotegia (LESAKA)	3267
32. PIERRESENEA (ORONÓZ-MUGAIRI)	2588
33. URGAIN (ORONÓZ-MUGAIRE)	0367
34. OITZKO OSTATUA (OIZ)	3100
35. ITTURBURU (SUNBILLA)	1026
36. BUSTITZ (SUNBILLA)	3922
37. ARIZTIGAIN KANPINA (SUNBILLA)	3622
38. HERRIKO OSTATUA (ZUBIETA)	2385

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Jende askok galdetu dit semeari euskaraz erakutsiko ote diogun. Eta bai, badaukagu asmoa erakusteko. Gainera, ama euskalduna da, eta horrek lagunduko du (...) Zailagoa izanen da nik euskaraz ikastea. Hitz batzuk ulertzen ditut, baina hizkuntza zaila da ikasteko eta ulertzeko. Saiatu izan naiz, baina alferrik. Hori bai, inork ez daki zer gerta daitekeen».

Julen RETEGI
Eratsungo pilotaria
BERRIA 2014.06.25



«Orain dela lau urte film labur bat egin nuen; ez zen gustukoa atera, ordea, eta ez genuen estreinatu; baina jarraitu dut lanean eta atera zaidan film luzearekin eman dut pauso bat aurrera».
«Ez nuen aukerarik izan ikasketak egiteko, baina urte batzuk daramatzat nire kabuz ikastaroak egiten, etxetik eta Internet bidez».

Xabier PERURENA
Leitzako zine zuzendaria
BERRIA 2014.06.27

11 galdera labur

Nor dugu Xabier Irisarri?

Malerrekako traste eta saltsero bat.

Zein afizio dituzu?

Denbora librearen arabera... (irriz)

Sekretu asko ikusten dira barraren gibeletako aldetik?

Bai, soberan! aunitzetan hobe ez jakitea, gero nerekin etortzen baitira etxera.

Elgorriagako bestetako edari izarra zein da?

Garardoa dudarik gabe.

Zein da zuretzat bestetako egunik politena?

Ez dut bereziki bat gustuko, baina bat esatearren, akaso lehenbiziko eguna, jendea gogotsuago dagoelako.



Xabier IRISARRI → Elgorriagako gaztea

Eta ekitaldirik ederrena?

Herri bazkaria, urtean behin bada ere denak elkarren oso lagunak garelako. Herriko jendeak sortzen duen giroa ederra da.

Pestetan zer ordutan hasten da tabernari lana eta noiz bukatu?

Hau parranda bezala da, badakizu noiz hasten zaren baina ez dakizu noiz bukatuko duzun.

Tabernan zenbatetan aritu zara psikologo lanetan?

Uf! Askotan egiten dut baina niri ezagutzen nautenetatik, askok pentsatuko dute psikologoa behar duena ni naizela (irriz).

Zerk egiten ditu berezi Elgorriagako bestak?

Elgorriagako bestak berez dira bereziak.

Jai egun baterako planik hobereena?

Asko ditut, baina bat esatekotan. Sua, nere zaldia, hartu eta bokata eta zatoa hartuta mendialdera joatea.

Amets bat?

Herrien askatasuna.

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Berrria erosi taldea

Karsuk®
Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldetako altzariak
Karlos Pombar Sainz
C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

JARDINE-GOXOTEGIK
948 630 786
Aitzate, 21 • BERA

zalain
JATEETEA - RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
www.zalainjateetxea.com

Jar ezazu zure erakundearen osasuna APMren esku!
Nafarroan 15 urteko esperientzia prebentzio-lanetan dugu gure alde!
• Lan-arriskuen prebentzioa
• Osasunaren zaintza
• Prestakuntza
• Errendimenduaren Kontsultoretza
Egoitza Nagusia: Iruña,
Monasterio de Alloz, 2
948 26 4915
apm@apmprevencion.com
www.apmprevencion.com

José I. Gonzalez Enguita
benturak
barrukoak eta fitzadak
tel. 666 235 466

GIZARTEA

TURISMOA → JOAN DEN URTEKO URRIAREN 1ETIK 2014KO IRAILAREN 30ERA BITARTEKO EKINTZAK HARTU DIRA KONTUAN

Turismoa sustatzeko 445.000 euro eman ditu Nafarroako Gobernuak

Diru-laguntzak partzuergo eta elkarteei zuzendurikoak ziren batez ere

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Turismo eta Merkataritza Zuzendaritzak ebatzi du dagoeneko turismoa garatzeko ekintzetarako elkarte, tokiko erakunde eta partzuergoentzako laguntzen deialdia. Deialdi horretarako, 2013ko urriaren 1etik 2014ko irailaren 30era egindako ekintzak hartu dira kontuan. Horrez gain, marketin-jardueretarako diru-laguntzak ere ebatzi ditu.

Lehen deialdian 270.000 euro banatu dira guztira diru-laguntza gisa, turismo-elkarte, Partzuergo eta tokiko erakundeen artean.

Eskualdeari dagokionez, Plazaolako Partzuergo Turistikoak 25.332,50 euroko diru-laguntza jaso du (62.500



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Urdazubiko Burdinaren Eguna antolatzeko diruz lagundu dute Bertizko Partzuergoa.

euroko aurrekontua aurkeztua zuen): 2.299,40 euroko laguntza Bide Berdeen Eguna antolatzegatik, 3.431,94 euro Lekunberriko Aitzinako Azokarengatik, 1.304,14 euro Imotzeko Bidaxken Egunarengatik, 1.715,97 euro Leitzako Talo Egunarengatik, 1.544,37 euro BTT ibilaldia eta Maratoi Erdiarengatik eta 15.036,68 euro kudeaketa lanengatik.

Bertizko Partzuergo Turistikoak 28.703,28 euroko laguntza jaso du (59.401 euroko aurrekontutik): 2.049,69 Pilotaren Unibertsoa antolatzegatik, 1.861,32 euro Urdazubiko Burdinaren Egunarengatik, 3.311,29 Artzaina: Nafarroako ofizio bat egitasmoarengatik eta 21.480,98 euro kudeaketa lanengatik.

Elkarteei dagokionez, Nafarroako Onddo

eta Zizen Kofradiak 5.226,48 euroko diru-laguntza eskuratu du 2014an Mikologia Hila-betea antolatzeko Elgorriagan eta Dantxari-neko Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzuen Elkarteak 1.909,94 eurokoa Mendekoste Egunaren antolatzeko.

MARKETINA

Turismo Zuzendaritza Nagusiak 175.054 euroko diru-laguntza

eman du azoka eta aurkezpen turistikoetara joatea, publizitate-kampainak, webguneak eta sarean marketin-ekintzak egitea, marketin alorreko prestakuntza-ekintzak eta sektoreko teknologia berriak eta berrikuntza bezalako proiektuetarako.

107 marketin-jardueran onartu dira eta guztira 139.377,92 euro jasotuzte. Erraterako, Hiruak Bat Landetxeen Elkarteak 7.797,13 euroko laguntza jaso du, Baztan-Bidasoaldeko Baliabide Turistikoaren Gida argitaratzeko (5.500 euro), *Baztan-Bidasoan zer bisitatu* hiruorriarako (330 euro), publizitate-rako (1.637,13 euro) eta elkartearen webgunea hobetzeko (330 euro).

Bost partzuergotako 19 eskaera onartu eta finantzatu dira 63.645,35 euroko aurrekontuarekin. Plazaolako Partzuergoari 13.575 euroko dirulaguntza eman zaio eta Bertizko Partzuergoari 14.615,36 euroko laguntza.

sarobe
gastronomia dekadentia
C/ de Estegana 25 bajo 31760 Bera (Navarra) 1.948 630 699 www.sarobe.net

elika
Dietista - Nutricionista
Kolegiatu zenbakia NA221
Iltzea, 6 behea 31780 BERA
948 631 283 - 645 708 512
elika.bera@btfmail.com

BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA


MARITX
Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak
T. (0034) 636 617 450

F. LANCHAS
Akuboladorea eta bermizatzailea
Parket eta parket flotatzaila
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

GIZARTEA

LANGABEZIAREN BILAKAERA 2014KO LEHEN ERDIAN



LANA → EKAINEKO DATUAK

Langabetuen erdiak baino gehiagok ez du prestaziorik kobratzen

1.177 langabetu zeuden ekain hondarrean, hilabete lehenago baino 102 guttiago

TTIPI-TTAPA

1.177 lagun zeuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izen emanek ekain hondarrean, maiatzean baino 102 guttiago. Nafarroa osoan %4,17 jautsi da langabezia ekainean eta eskualdean oraindik gehiago, %7,97. Kontuan hartu behar da urtea 220 langabetu gehiagorekin hasi zela, baina ilbeltzeko igoera bortitzaren ondotik, pixkanaka duela bi urteko mailara jautsi da langabetu kopurua.

Ekainean 607 kontratu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, horietatik

36 bakarrik mugagabeak.

ADIN ETA SEKTORE GUZTIETAN BEHEITI

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean 539 lagun daude langabezian, maiatzean baino 45 guttiago. Adin tarte horretako emakumeen artean 530 langabetu daude, maiatzean baino 39 guttiago. 25 urtez beheitiko gizasemeen artean ere 3 lagun guttiago daude langabezian, 69 langabetu, eta adin tarte horretako emakumeen artean ere maiatzean baino 15 emakume guttiago daude lanik gabek, 39 emakume denek.

Zerbitzuen arloak segitzen du langabe gehien izaten, baina jautsierik nabarmenena izan duen sektorea izan da, 828tik 755 langabetera pasatuz, 73 guttiago.

LANGABEZIA-DATUAK HERRIKA | 2014ko ekaina

Herria	Populazioa 2013	Lanik gabek gutzira	Langabezi-prestaziorik kobratzen dute?	
			EZ	BAI
ARANO	120	5	3	2
ARANTZA	634	16	8	8
ARESO	271	8	4	4
BAZTAN	7.974	278	143	135
BEINTZA-LABAIEN	240	13	8	5
BERA	3.829	160	82	78
BERTIZARANA	614	45	32	13
DONAMARIA	437	19	12	7
DONEZTEBE	1.681	101	70	31
ELGORRIAGA	225	11	6	5
ERATSUN	159	16	8	8
ETXALAR	829	31	14	17
EZKURRA	151	8	2	6
GOIZUETA	763	40	20	20
IGANTZI	627	16	7	9
ITUREN	513	36	23	13
LEITZA	2.889	149	73	76
LESAKA	2.784	135	75	60
OIZ	144	4	2	2
SALDIAS	114	6	2	4
SUNBILLA	627	37	21	16
URDAZUBI	380	5	3	2
URROZ	181	5	4	1
ZUBIETA	316	22	13	9
ZUGARRAMURDI	220	11	5	6
Denetara	26.722	1.177	(%54,38) 640	(%45,62) 537

go. Industria arloan 21 langabetu guttiago daude, 200 denek. Eraikitzen ere 6 langabetu guttiago daude, 124. Nekazaritzan ere bi lagun guttiago daude

langabezian, 18 lagun, eta aitzinetik lanik egin ez dutenen artean 80 lagun daude langabezian, maiatzean bezalaxe. Halere, bertze ondorio goibelago bat ere ba-

dute ekaineko datuek, izan ere, langabezia-prestaziorik kobratzen ez dutenak (%54,38) gehiago baitira kobratzen dutenak baino (%45,62).



UTZITAKO ARGAZKIA

Azpikontretako lan baldintzak hobetzeko 834 sinadura

Legegintzako Herri Ekimena babesteko jaso dituen 14.635 sinadura aurkeztu zituen ekainaren 18an ELAk Nafarroako Gobernuan. Nafarroako parlamentuan eztabaidatuko den Legegintzako Herri Ekimen honen bitartez, enpresak aldatzen direnean langile azpikontretatuaren subrogazio-eskubidea izatea eta gutxieneko lan eta soldata baldintzak bermatu nahi ditu ELAk. Azken hilabeteetan lantoki eta herri ezberdinetan ibili da ELA sinadurak jasotzen eta behar zuten kopurua bikoiztu egin dute. Baztan-Bidasoaldean ere 834 sinadura bildu dituzte.

KULTURA → UZTAILAREN 31TIK IRAILAREN 14RA

Erakusketa etnografikoa irekiko da Julio Caro Barojaren omenez

Lizarrako Museo Etnografikotik ekarriko diren 43 nekazaritza lanabes bilduko ditu

TTIPI-TTAPA

Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrenaren baitan *Don Julio-ren arrastoa* goiburupean egiten ari diren ekitaldien harira, erakusketa etnografikoa ikusgai izanen da Kultur Etxean uztailearen 31tik irailaren 14ra, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Erakusketa hau gauzatu ahal izateko, Lizarran dagoen Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnografikoko "Berako funtsa" bezala ezaguna den eremuko 43 lanabes aukeratu dituzte: laiak, segak, goldea, aizkora, igitaiak, labanak, sagar-biltzekoak, zorrotzarriak, kairuak eta nekazaritzarekin lotutako bertze zenbait lanabes ikusgai izanen dira, bere garaian Caro Barojak berak Beran bilduak gehienak.

Aitzinetik, uztailearen 24an, 18:00etan herriko bisita antzetzua eginen da Herriko Etxeko Plazatik Itzearaino eta Donostiako EHUKO Udako ikastaroetan ere Caro Barojaz ariko dira. Irailean, urrian eta azaroan bertze hainbat solasaldi, kontzertu eta kultur ekitaldi eginen dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIA

Segida duen ikasturte bukaera jubilotekan

Jubiloteka zerbitzuak lehen aldiz uztailean ere segida du, baina ekainaren 27an ikasturte bukaerako besta egin nahi izan zuten eta ekitaldi aski hunkigarria ospatu zuten. Erabiltzaileek bi kanturekin ongiatorria eman zieten Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako eta udaleko ordezkariari, Jokin Apezetxea teknikariari eta Marisol Taberna alkateari. Hain zuzen, Edurne Garro monitoreak bi erakunde hauen laguntza eskertu nahi izan zuten, baita boluntario aritzen diren pertsonena ere. Antonio Fernandezek, jubilotekako erabiltzaileen izenean ere, eskerrak eman zizkien eta Julia Zaportak olerki bat ozen irakurri zuen. Gero, Jose Mari Irazoki, Jose Mari Lasaga, Miguel Angel Sarobe, Ramon Errandona, Santi Maya, Marian Biurrarena eta Aitziber Esnaola boluntarioei diploma eta opari bat (jubilotekan bertan egindako eskulana) eman zieten.

Datu eguneratzea Ehiza eta Arrantza Elkartean

Ehiza eta Arrantza Elkarteko bazkideek elkartearen egoitzaatik pasatu beharko dute abuztuaren 31 baino lehen, Datuen Babeserako Legeak agintzen duenaren arabera, beraien datuak eguneratzeko.

Nortasun Agiria eta

elkartera sarbidea ematen duen txartela eman beharko dute eta tramite hau betetzea nahitaezkoa dela gogorazi dute. Beraz, abuztuaren 31rako tramitea egin ez duen bazkideak ez du elkartera sartzerik izanen eta horretaz gain, kotoko txartelarik izanen ez duenez, ez du ehiza egiterik izanen.

Ba al zenekien

Guztiok Guraso Elkartearen aldeko 3x3 Saskibaloi txapelketa herriko solidarioa antolatu duela Toki Ona Bortzirietan saskibaloi taldeak uztailearen 26an. 16:00etan hasiko da Toki Onako patioan edo, euriarekin, kiroldegian.



Pertsonaia

Beñat GARAIAR

Hiru hilabete eta gero Italiatik bueltan


Mekatronika industria, goi mailako heziketa zikloa ikasi du Toki Ona ikastetxean eta lantokiko prestakuntza, Erasmus proiektuari esker atzerrian egin du, Italian zehazki. Praktikak egiteaz gain, proiektu bat ere egin dute atzerrian. Martxoaren 28an joan zen eta ekainaren 28an etorri da bueltan etxera, hiru hilabeteren ondoren. Berako ikaslearekin batera, Toki Onan ikasi duten bertze bi doneytebarrek ere parte hartu dute Ander Basterra Ingalaterran ibili da eta Unai Urroz Italian.

KULTURA

Elkar ilustrazio lehiaketa irabazi du Inhar Aranberri Rozasek

TTIPI-TTAPA

Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketak, hauren eta gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzea du helburu eta aurtengoan seigarren edizioa bete du. Alaine Agirrek idatzitako *Letra txarra daukat, eta zer?* ipuin labur argitaragabea ilustratu behar zuten partehartzaileek. C mailan, Labiaga Ikastolako Inhar Aranberri Rozasek egindako ma-



UTZITAKO ARGAZKIA

Marrazki irabazlea.

rrazkiak lehen saria irabazi zuen.

LESAKA

KULTURA → EKAINAREN 28AN AURKEZTU ZUTEN

Joxe Iturria zenaren gerra oroitzapenak biltzen dituen liburua karrikan

Antonio Iturria semeak idatzi eta Gernika Fundazioak argitaratu du

Aitor AROTZENA

Memorias de guerra, Joxe Iturria liburuaren aurkezpena egin zuten ekainaren 28an Harriondoa Kultur Etxean. Liburua Joxe Iturriaren semeetako batek, Antonio Iturria Lekuonak idatzi du. Aitari Espainiako gerran gertatutako pasadizeo gain, Lesakako ohitura eta XX. mendeko hasierako bizi-moduari ere errepasoa egiten dio. Egilearekin batera, Xabier Irujo eta Fernando Mikelarena

historialariak izan ziren aurkezpenean.

Zoritxarrez aurkezpenetik lau egunera, uztailaren 2an hil zen Joxe Iturria Durango eta Gernikako bonbardaketen lekuko izan zen, han suertatu baitzen Errepublikako ejerzitoaren kamioi gidaria zenean, 22 urterekin. Han ikusitakoak arrastoa utzi zion, baina ez zion inoiz familiari hango berri zehatzik eman. Antonio semeak aipatu digunez, «behin jubilatu zenean hasi zen barrenak hustutzen». Istorio horiek idazten hasi zen Antonio, Joxeren zortzi bilobei erakusteko asmoz. Gernikako Bakearen Museoa Fundazioak argitaratu du.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Joxe eta Antonio Iturria aita-semeak, Ezkuntzako balkoian.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Gurasoak protagonista San Juan bezperako ospakizunean

Biziberrituz Euskara eguna ospatu dute aurten ere San Juan bezperan. Euskara Batzordeak *Guk euskaraz... zuk zergatik ez?* goiburuean, hainbat ekitaldi antolatu zituen. Neska-mutikoez lelo hori zioen murla margotu zuten Antoiuko parkean eta gero *Euskararen fruitu goxoak* jokoan aritu ziren gurasoekin plaza. Bertso Eskolak, Abesbatzak eta trikitixa eskolak parte hartu zuten plaza-ko ekitaldian. Gurasoen ordezkari, Begoña Gonzalez eta Arrate Egia, Irain eta Tantarumairu Guraso Elkarteak piztu zuten sua.



ARGAZKIA: JUANJO GUERRERO

RockBand eskaini du Musika Bandak ANFASen alde

RockBand izenburuean, kontzertu bikaina eskaini zuen ekainaren 20an Musika Bandak. Txartelen salmentak ikusita Eskol-Ttikiren gibelesko alde tokiz eskas geldituko zela eta, azkenean frontoiaren gibelesko aparkalekuan eskaini zuten ANFASen aldeko emanaldia eta mila lagun baino gehiago sartu ziren aditzera. Musika bandak hainbat kolaborazio izan zituen emanaldian. Erraterako, Kankako Jabier Fagoagak Barricadako El Drogasena egin zuen edo Vicente Apeztegiak Nino Bravorena, Estitxu Pinatxo eta Ainara Roda ere aritu ziren kantari eta ANFASeko langile, laguntzaile, guraso eta neska-mutilak ere, kantura eta dantza atera ziren. Izan ziren Europako kantariarena edo Queeneko Fredy Mercuryrena, AC/DCko Brian Johnsonena eta bertze hainbat kantariren paperean ere bikain aritu zirenak. Musikariren artean, bandakoekin batera gitarra eta baxua josten aritu ziren Beñardo Iantzi, Joseba San Sebastian eta bertze batzuk.

ZUBIONDO
Jatetxea
sugardotegia jatetxean
Alasta karrika
BERA NAFARROA

Lentzea
Balgantza
Mortzen
Jantzirik gabeko
Pisatzen blazak
karriagorria
Behoko plaza 10 30770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Erredegia - Aldea
BARRIOA, 3 - LESAKA
Tel: 948 637 127

KATIBETXEA
OSTARUA
BARRIOA, 3 - LESAKA
Tel: 948 637 127

GIZARTEA → ZERBITZU ZABALAGOA ESKAINIKO DUTE

Turismo Bulegoa zabalik egonen da uztaila eta abuztuan

Miren Bizente izanen da arduraduna

Irune eta Itsaso

Aurtengo udan Miren Bizente izanen da turismo bulegoko arduraduna eta uztailaren 1etik abuztuaren 13ra eta abuztuaren 20tik abuztuaren 29ra ondoko ordutegian egonen da zabalik: Astelehentan 10:00etatik 13:30era; asteartetik ortziralerara 10:00etatik 13:30era eta arratsalde 17:00etatik 19:00etara. Larunbat eta igandetan berriz, 10:30etik 13:00etara. Abuztuaren 14tik 19ra ordutegi desberdina izanen da herriko bestak direla medio. Hau izanen da ordutegia: Abuztuak 14, 17:00etatik 19:00etara, abuztuak 16, 10:30etik 13:00etara, abuztuak 17, 10:30etik 13:00etara

ra eta abuztuak 19, 17:00etatik 19:00etara. Abuztuaren 15 eta 18an turismo bulegoa itxita egonen da. Herriko bisita gidatua asteartetik ortziralerara arratsaldeko 19:00etan izanen da eta asteburuetan 13:00etan. 3 euroko prezioa izanen du pertsonako.



ARGAZKIA: NAGORE ANSALAS

Elkarrekin trikotatzeko eguna

Jende aitzinean krotxeta egiteko eguna ospatu zen ekainaren 20ean eta gantxilo tailerrekoek elkarlanean egindako proiektua aurkezteko aprobetxatu zuten. Proiektua, kultur etxeko harrizko bankuan jartzeko kuxin bat izanen da. Aurtengoz honekin gantxillo tailerra akaututzat emanen da.

Udalekuak

Lesakako "Lagunekin jolasean" taldeak an-

tolatuta udaleku irekiak eskaintzekoak ziren aurtenera, baina haur ba-

ten faltan ez da udaleku irekietako talderik osatu Etxalarren.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

San Juan sua

Ekainaren 23an suarekin ospatu zen San Juan bezpera. Hainbat herritar hurbildu zen beren berendu afariarekin plazara. Iluntzean herriari itzulia eman zitzaion joareak joz eta ondotik suaren gainetik saltoka aritzeko aukera izan zen gaueko 23:30ak pasa arte, trikitilari eta txistulariek girotuta.



ARGAZKIA: REBECA ARANZADI

Udaberriko pilota txapelketa

Ekainaren 18an izan zen Altxatak antolatutako pilota txapelketaren finala. Alebinetan, banaka, txapeladuna Raphaela Gomes izan zen; Benjaminetan Kermen Ansalas eta Niko Garcia eta tikitetan Arri Atondo eta Lander Lasaga. Txapeladunek gominolaz egindako frontoi bat izan zuten sarritzat. Zozketa bat eta denentzat berendua eskaini zuen Altxatak.

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGLIA - T. 637 40 86 40 - 31780 BERA - andonimasuakoi@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio individualak eta kolektibosk
- Satelite bidezko interneta
- Digital - banatzaile ofiziala

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
948 630 763 - Altxate, 17 - BERA

6 LOTE
ZOKKETATUKO DITUGU urtean zehar

MARTIKO

Zalain Ind. (31780) | BERA
T 948 625 016 | F 948 625 036
martiko@martiko.com
www.martiko.com

IGANTZI

GIZARTEA → ESKOLAKO NESKA-MUTIKOEK

Auzolanarekin bukatu dute ikasturtea

Frontoiko zolako txikleak kendu eta trenbideko zaborrak bildu dituzte

Joxean ORTEGA

Eskolan lanak bukatu dira eta orain igerilekuen txanda ailegatu da. Hala ere, eskolako haurrek bertze lan berezi bat egin zuten: auzolana.

Udaletxean baime-na eskatu ondotik, Haur Hezkuntzako ikasleek frontoiko zolan ziren txikleak espatulaz garbitu zituzten, herriko zarrontziak hustu eta poltsa berriak paratu zituzten eta Herriko Iturriaren lore ederrak landatu zituzten.

Lehen Hezkuntzako ikasleak, berriz, Berri-zaunera oinez jautsi ziren eta trenbidean ziren zaborrak bildu eta edu-

kiontzietara bota zituzten.

Azken egunean 6. mailakoei agur polita eskaini zitzaizkien eta gero jolasak egin zituzten frontoian. Gero bazkari ederra Biltokian eta... hurrengora arte!

Herritarrek ere udari ongietorria egin zioten: San Juan gauean afari autogestionatua inoiz baino lagun gehiago elkartu ziren, giro ederrean suaren zain. Sua piztean haurren eta ez hain haurren txanda izan zen eta denak jautsi arituta ederki berotu ziren. Orain uda ongi pasatu eta gero bestak!

Euskararen erabilera

Euskara Batzordea euskararen erabilerekin kezkatua dago, herriko karriketan, parkean, ostatuan, plazan... euskara gero eta guttiago aditzen delako, baita haurren artean ere.



ARGAZKIAK: JOXEAN ORTEGA

Eskolako neska-mutikoak auzolanean eta ikasturte bukaerako bestan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Igerilekuko berendutokian paratu dute lehenbiziko murala.

Horregatik, eta batez ere jende heldua sentsibilizatzeko asmoarekin, herriko hainbat tokitan mural batzuk jartzeko

asmoa du, euskaraz so-lastera animatzeko le-loekin. Euskara batzordeak proposatuta, zen-bait gaztek lehenbiziko

murala egin dute, eta pizsinako berendutokian paratu dute (argazkiko). Laster gehiago paratuko dituzte.



ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> ☛ Langile autonomoak ☛ Nekazariak eta mendi langileak ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak ☛ Lan-Kontratutarako laguntzak ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> ☛ Diru-laguntza ezberdinak ☛ Kontabilitateak ☛ IVA eta IRPF ☛ Errenta aitortpenak ☛ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak ☛ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
--	---

artekari@artekari.com

LESACA: Bittiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

GIZARTEA → EUSKARAREN ALDEKO EKIMENA

Eskarari buruzko mezuak nonahi irakur daitezke herriko karriketan

Euskara Batzordeak hainbat esaldi zabaldu ditu

Nerea ALTZURI

Arantzan zer, uskaraz ler... Nork ez du buruan lelo hau? Arantzan UE-MA Eguna egin zenean hautaturiko leloa izan zen. Ba hau ere jarria da herriko txokoetan, Euskara Batzordearen ekimenez. Izan ere, joan den apirilean, euskararen arnaguneei buruzko ikastaroen, gaur egun hizkuntzaren inguruan dauden hutsuneak aditzera eman ziren. Gure herriak euskararen arnagune gisa bizirik iraun dezan, lanean segitu behar da.

Hortik, herri bakoitzak hizkuntzaren aldeko ekimenak antolatu ditu. Gurean, Euskara Batzordeak zenbait mezu prestatu eta gorapean, eskolako atarian, ostatuetan, parkean eta frontoian para-

tu ditu: *Euskara polita da; Ni arantzarra ni euskalduna; Non nire hitza, han nire euskara; Jostatu ere euskaraz; Mingaina dantzatu, euskaraz mintzatu; Arantza gorputza, euskara bihotza; Gure euskara, gure ondarea...*

Ipuin lehiaketa

Oihana Amoros Abrego eskolako ikasleak Elkarrek antolaturiko ilustrazio eta ipuin lehiaketan aipamen berezia lortu du *Hegan txoriak bezala* ipuinarekin. Lehiaketa 842 ipuinek parte hartu zuten. Beraz, zorionak Oihana!

Informazioa osatzen

Aitzineko alean, udaleku irekiak Bortziritako Euskara Mankomunitateak Dindaiarekin elkarlanean antolatu dituela jarri genuen. Informazioa ez zen osoa, izan ere aurretik, Bortziritako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eta Lagunekin Jolasean elkarteak ere antolaketan aritu dira.



ARGAZKIAK: AITOR ELEXPURU

Ikasturte bukaera

Giblean eskolako ikasturtea gelditu zaigu. Honezkerok, haur eta gaztetxoak oporretan dira. Hala ere, ikasturte bukaeran zenbait kanpaldi eta ateraldi egin zituzten. Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urtekoak Zugarramurdi izandu ziren, Etxalar eta Igantziokoekin batera. Hiru herrietako lehen ziklokoak Hondarribian izandu ziren eta DBHko ikasleak Bartzelonan. Azkenik, ekainaren 20an ikasturte bukaerako txangoa egin zuten Uxue-Tafalla aldera. Goizez Uxueko eskola eta herria ikusi zituzten (beraiek Arantzan izan ziren) eta eguerdian Tafallako igerilekuetara joan ziren.

Bortz talde taula gainean Arantza Rock-en

Kalera, Afu, Xaiko, Governors eta Aierrick taldeak izanen dira abuztuaren 23an eginen den Arantza Rock jaialdian parte hartuko dutenak. Urteroko hitzorduak ez dio hutsik egin Gazte Asanbladak eta aurten ere ziurtatua izanen da besta ondoko larunbateko giroa. 22:30ean hasiko dira kontzertuak eta sarrera debalde izanen da. Bertzalde, hiru sari potolo zozkatzeko boletoak ere atera dituzte euro batean. Kontzertuen egun berean eginen da zozketa eta saridunek hilabete bateko epea izanen dute agertzeko. Sariak hauek izanen dira: Euskal Herriko landa etxe batean bi lagunentzako asteburua, Arantzako Aterpen bi lagunentzako afaria, arratsa eta gosaria eta bi lagunentzako zirkuitua bainuetxean.



aterpe
albergas jaitzari eskatuak

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

IMANOL ITURRIA
ZURGINA

Enpresa eta partikular

T. 661 577 137
E-posta: imaiturria@hotmail.com

Eskatu zurrekontua kongrimoiek gabe

Gure Haragia
Nuestra Carne

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com

SUNBILLA

HEZKUNTZA → EKAINAREN 20AN

Ikasturte bukaerako besta ederra egin dute eskolakoek

Zortzi ikasle Doneztebera doaz hurrengo ikasturtean

Maider PETRIRENA

Ikasturteari bukaera emateko, eskolako irakasle eta ikasleek besta polita antolatu zuten ekainaren 20an. Goizeko 10etan beheitiko eskolako Haur Hezkuntzakoak goitiko eskolako parkera joan ziren eta han denek elkarrekin emanaldi ederra eskaini zuten.

Haur Hezkuntzakoak hasi ziren karramarroaren dantza kantatu eta dantzatuz. Ondotik, koxkorrenek hartu zuten beraien txanda, dantza, kanta, flauta, koreografiak eta guzti eginez. Hauei denari laguntzen Aintzira musika irakaslea aritu zen gitarrarekin, baita taldeko tutoreak nola irakasleak ere. Momentu hunkigarri bat ere egon zen 5. mailakoek 6. mailakoei agurra eta suerte ona eskaini zieten datorren ikasturterako. Ai-



Ba al zenekien

Ariztigain kanpinak 'Bungalow zoriontsuak' kanpainen parte hartuko duela lehen aldiz. Bigarren urtea da kanpaina hau egiten dela Nafarroan, langabezia dauden familiei ere oporretaz gozatzeko aukera emanez.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

San Juan bezperan su gainetik salto

Ekainaren 23an, San Juan bezpera izanda, su saltoak egin ziren. Denborak atsalde partean ez zuen sobera lagundu baina 9etako ezkil jotzearekin batera tarte polit batean atertu zuen eta haurrek disfrutatzen zuten aukera paregabea izan zuten.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Eskolako ikasleak, ikasturte bukaerako ospakizunean.

patuko dugu lerro hauek bidez zortzi ikasleek utziko dutela Sunbillako eskola Doneztebe-

ko Institutura joateko. Ondotik luntx eder bat izan zuten eta akitzeko *Zazpi antxume* ipuinari

buruzko antzerkia. Zorionak antolatzaile eta partehartzaile guztioi. Uda ona pasa.



ARGAZKIA: NIEBES BIURRARENA

Kinto besta kanpinean

1968, 1969, 1970, 1971 eta 1972 urteetan jaiotakoek beraien kinto besta ospatu zuten ekainaren 28an Ariztigain kanpinean. Laugarren urtea da ospatzen dutela eta borts kinto ezberdin izateko ez ziren sobera elkartu, baina arras ongi pasatu zutela jakinarazi digute. Hurrengo urtean berriz.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Bestaberri eguna

Bestaberri eguna ospatu zen ekainaren 22an. Goizeko 9etan Meza Nagusia. Ondotik Florentino Gelbentzu zinegotziarekin eskutik banderaren dantza. Prozesioa, elizatik atera eta zubi berrian barna, kale nagusira. Guztia dotore dotore apaindua. Bertan, Ibarra etxean aldarea. Handik zubi zaharran barna berriz elizatarira. Han berriro ere banderaren dantza egin zen. Prozesioan herriko koralak parte hartu zuen, baita txistulariek ere. Jaunartzea egin zuten hiru mutikoek ere parte hartu zuten larrosa lore-hostoak botaz. Egun ederra izan zen.

GIZARTEA → UZTAILAREN 3TIK AITZINERA

Haurrak ludotekan hasi dira lehen aldiz

Oraingoz sei haurrek eman dute izena, baina izena ematen ahal da

Martin BERTIZ

Uda honetan lehenengoz ludoteka antolatuta da haurtxoendako. Uztailaren 3an eman zaio hasiera eta 09:00etatik 13:00etara aritzen dira. Herriko Etxeko lehenengo solairuan egonen dira eta momentuz sei haur apuntatuak daude, astean 25 euro ordainduko dituzte. Interesatuak 679246349 telefono-ra deitu.

Kurtso bukaerako bazkaria

Ekainak 21an kurtso bukaerako bazkaria egin zen. Goizean sei kilometroko mendi ibilaldia egin zuten haur eta gu-

rasoek Bertizen; eguerdian denak gosetuak plazan bazkaria izan zuten. Bazkalondan berroa zegoela eta mangera atera eta haurrak freskatu egin ziren, jarraian kurtso guztian ateratako argazkiak ikusi ziren.

Zuzenketa

Aurreko alean aipatu ge-



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Aterpea eraikitzen

Herrian aspaldi beharrezko zen aterpe bat eta eraikitzeko lanak hasi egin dira. Eskola ondoko patioan kokatua egonen da eta udalak emandako dirulaguntza batekin egingen da. Lanak auzolanean egiten ari dira eta ekainaren 28an jendea gogotsu eta alai aritu zen lanean.

nuen Narbateko Eguna Guraso Elkartek anto-

latu zuela. Bada, ez zen horrela izan, antolakun-

tza herriko gazteen kar-gu joan baitzen.



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Altxumeko bidea moldatu dute

Altxumeko bidea moldatu dute. Udalak diru laguntza eman zuen bidea ormigonatzeko eta bailarako albintek eta herriko bolondres talde batek egin zituzten moldaketa eta ormigonatze lanak.



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Eskolako plaka berria

Duela hilabete batzuk aldatu zuten eskolako plaka. Atearen goiko aldean dago, alde batera, eta lehen zegoena erdaraz zegoen eta berria euskaratu egin dute. Moldaketa lanak udalak egin ditu.

BERTIZ

Euskal Artzainen bizitza agertzen duen erakusketa zabaldu dute

TTIPI-TTAPA

Euskal Artzainak Ameriketara elkartaren eskutik, Bertizko Natur Parkeko jauregian Artzainen bizitza argazkietan izena duen erakusketa ireki dute ekainaren 29tik abuztuaren 31 arte, 10:30etik 19:30era. Erakusketa honetan artzainen argazkiez aparte, ardi kanpo edo

kamaina bat ikusteko aukera izanen da, lanean gogor aritu eta gero, atsedena zein baldintzetan hartzen zuten erakusteko. Erakusketa honetarako, artzainen argazkiez gain, bertze hamaka panel berri ere egin dituzte, lau hizkuntzetan, beraien bizimodua nolakoa izan zen azalduz.



UTZITAKO ARGAZKIA

Rafael Lizasoain artzaina, Laura Igantzi lehendakaria eta Adriana Marmaun arduraduna.

Erakusketa hau, gure artzainek pairatu zituzten bizipenak, era-

kutsi zituzten baloreak, eta erakutsi zuten ketuena erakusteko anto-

latu nahi izan du Euskal Artzainak Ameriketara elkartek.

DONEZTEBE

GIZARTEA → ALKOHOLAREN KONTRAKO KANPAINA

Film laburren lehiaketa prest dute gazteentzat

Irailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira lanak

TTIPI-TTAPA

Adin txikikoek egiten duten alkohol kontsumoaren kontrako kanpainaren baitan, Osasun Etxeak gazteentzat film laburren lehiaketa antolatu du: alkohola eta bestak (Bestaz eta lagunetaz gozatu alkohola edan gabe, edo gutti edanda) gaitzat hartuta. Helburua bideo laburrak (gehenez 5 minutukoak) ekoiztea da.

Bi kategoria daude: 12 urtetik 16 urtera eta 16 urtetik 24 urtera. Lan hauek aurkezteko epea irailaren 15ean akituko da eta egile bakoitzak nahi adina obra aurkez dezake, Osasun Zentroan, Mankomunitatean edo Doneztebeko liburutegian CD batean eramanez edo emailez laburmetraiak@gmail.com helbidera igorritz.

Irabazleek Tag Lase-raren bi orduko bitxartel edo Segwayan ordubete ibiltzeko bitxartel irabaziko dituzte (bi sari hauek Leurtza abenturaren eskutik).



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL ETA ALICIA DEL CASTILLO

Giro ederrean joan dira San Pedro bestak

San Pedro bestak giro ederrean joan dira. Txupinazoa botatzearen ardura Doneztebarrak Merkatarien Elkarteko Natalia Rekartek eta Mendi Abesbatzako Ainara Mendiak izan zuten. Lehen suziria bota baino lehen, Abesbatzak *Gora Doneztebe* kantatu zuen Herriko Etxeko balkoitik, Jon Irazoki zuzendariak pareko etxetik zuzentzen zuen bitartean. Larunbata, Udal Txikiaren Eguna izan zen. Aritz Zulaikak hartu zuen alkatearen ardura, Txomin Omarrek epailearena eta Ana Etxartek banderadunarena; zortzi zinegotziak, berriz, Joseba Juantena, Ane Iparragirre, Olatz Mutuberría, Naroa Gerendiaín, Oier Agesta, Olatz San Miguel, Ivan Larraza eta Maika Bengoetxea izan ziren. Gazte Burrenbak bazkaria egin zuen Intzakardin eta hamargarren urteurrena ere ospatu zuen gazte elkarteak. Honela, batzordean aritu diren guztiei omenaldia eskaini zitzaizen. San Pedro egun handian, nola ez, Trapatan dantza eskaini zuten herriko dantzariak eta bandera dantza Eduardo Almandozek. Arratsaldean, Erreka dantza taldekoek ere bere emanaldia eskaini zuten.

UZTAILAREN 14TIK ABUZTUAREN 8RA

Udako Kirol Eskola Errekaren eskutik

TTIPI-TTAPA

Erreka Elkarteak 14. Udako Kirol Eskola antolatu du Udalaren laguntzaz. Astelehen, asteazken eta ortziraleroko egunen dute eskolako frontoian eta kiroldegian, uztailaren 14tik abuztuaren 8ra (11:00-12:00 talde batean, eta 12:00-13:00 bertzean. Prezioa 33 eurokoa izanen da Errekako bazkideentzat, eta 36 eurokoa ez direnentzat. Izen emateko Itziar Jorajuriarekin harremanetan jarri behar da (Tel. 699 572 515 – itziarjorajuria@hotmail.com).

APARAN, S.A.

BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

AMEZTIA

HOSTALA BTT ZENTRUA OSTATUA JATETXEA

ASTEBURUKO MENUA

18€

HAURRENTZAKO MENUA

10€

ETA GAINESA...

ENTZALADAK
PASTA FRESKOA

SASOIKO BARAZKIAK
PLATER KONBINATUAK

Ogitartekoak, sandwich-ak, hanburgesak...

T. 948 450 028 DONEZTEBE www.ameztia.com

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 21 ETA 23AN

Bestaberri eta San Juan bezpera mahai inguruan bilduak

14 eskulangilek beraien lanak erakutsi zituzten

Mattin LARRALDE

Bestaberri eguna ospatu genuen ekainaren 21ean. Bertan, ohitura den bezala, berendua izan zen herritar guztientzat. Jende aunitz hurbildu zen berendu afarira eta giro onean pasatu zuten arrats partea, «jan, edan eta ba-kea eman».

San Juan bezperan, berriz, suak piztu zituzten Elgorriagan ere. Nahiz eta euri pixko bat bota, gero atertu zuen eta sua egin zen, «txarra uxatzeko».

Suaren gainean saltoka ibili aurretik, azken urteetan egiten den be-



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Suaren gainean saltoka, San Juan bezperan.

zala, gurasoek antolatuta afaritxo bat izan zen. Bakoitzak bere etxetik zerbait ekarri eta denen artean jan zuten.

Santiago bestak gehigarrian

Uztailaren 24tik 27ra ospatuko diren Santiago besten egitaraua ale honetako gehigarri berezian topatuko duzue, 11. orrian.

GIZARTEA

Gure Esku Dago boletoen zozketa egin dute

TTIPI-TTAPA

Gure Esku Dago dinamikaren baitan Baztan, Bertizarana, Bortziriak eta Maleurrekan saldutako boletoen zozketa egin dute berriki eta antolatzaileek zerbait sarrituen berri eman dute.

1.047 eta 2.364 zerbakiak dira sarituak. Lehenbiziko zerbakiaren jabeak bi lagunentzako asteburu bat eskuratu du Euskal Herriko landa-etxe batean eta bigarren zerbakiaren jabeak eskualdeko jate-txe batean bi lagunentzako otordua izanen du. Sarituek 646 455643 telefonora mezu bat idatzi beharko dute saria eskuratu ahal izateko.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

**UDAKO
MERKEALDIA**
uztailaren 15etik aurrera



edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

ITUREN

BESTAK → UZTAILAREN 18TIK 21ERA

Iturriaga eta Egañaren bertsoak bestak akitzeko

Ander Erasun,
Oihan
Larretxea,
Maika Ariztegi
eta Nagore
Diazek herri
kirol saioa
eskainiko dute
igandean

Arkaitz MINDEGIA

Iturengo bestak osatuko dituzte:

ORTZIRALA, UZTAILAK 18

- 17:00: Kiki eta Koko pailazoak. Ondotik txokolatada.
- 19:00: Dantzariak.
- 20:00: Txupinazoa. Ondotik kalejira herriko musikari eta buru-haundiekin.
- 21:30: afaria Altxunea erretegia.
- 23:30: Kontzertua KALERA taldearekin. Ondotik, berbena TRIKIDANTZ taldearekin.

LARUNBATA, UZTAILAK 19

- 10:00: Diana.
- 11:00-13:00: aurpegi

margoketa eta haur-jokoak.

- 14:00: gazte bazkari autogestionatua.
- 17:00: Haurrentzako puzgarriak.
- 18:00: toka jokoa.
- 19:00: Pintxo lehiaketa (Bakoitzak etxean prestatu beharko du bere bandeja). Horrekin batera txokolata, zingar jatea eta sagardo kupela
- 20:30-22:30: PURO RELAJO musika mexikarra. Ondotik, berbena OHARKABE taldearekin.

IGANDEA, UZTAILAK 20

- 10:00: Diana.
- 11:00: Puzgarriak.
- 12:30: Herri kirolak: Ander Erasun, Oihan Larretxea, Maika Ariztegi eta Nagore Diaz.
- 17:00: mus txapelketa.
- 18:00: Bordetxe abe-

re zirkoa plazan.

- 19:00: tortilla txapelketa (bakoitzak bere tresnak ekarri, osagaiak udalak jarriko ditu). Postre lehiaketa (bakoitzak etxean prestatu). Horrekin batera, zingar jatea eta sagardo kupela.
- 20:00: trikitilariak eta berbena AIERRIK taldearekin.

ASTELEHENA, UZTAILAK 21

- 10:00: Diana.
- 10:30: Plater tiraketa.
- 11:00: Puzgarriak haurrentzat.
- 12:00: pilota txapelketako finala (Lehenik 3. eta 4. postuak eta ondotik, finala).
- 14:00: bertso bazkaria: Andoni Egaña eta Unai Iturriaga.
- 20:00-21:30: Trikitilariak eta gero, berbena trikitilariekin.



ARGAZKIAK: EDURNE MIKEO

Bestaberri eguna eta San Juan bezpera

Bestaberri egunean, txistulariak kalejiran ibili ziren, mezan aingeruek lagundu zuten (goitiko argazkia) eta plazan dantza luzea eskaini zuten. San Juan bezperan, berriz, guraso eta haurrek berendufaria izan zuten Aurtizko elkartean (beheitiko argazkian). Elizako bidean, Iturengo plazan bezalaxe, suak piztu eta saltoka ibili ziren atertu zuenean.

Ba al zenekien

Junior mailako Nafarroako Mendi Bizikleta txapelketa irabazi duela Jabier Seinek. Zangozan ekainaren 28an egindako proban jantzi zuen maillot gorria.



HERRIKO OSTATUA
ITUREN
T. 948 451 757 - 629 549 775

Habitak - Bideak - Bar-kubadak - Tarnu-lorak
Jardun eta berriztatze zerbitzuak eta gurea du zurekin zure bizitza hobetzeko.

Tresanea LAGUNTZEN ERREKIA
CONSEJOS DE TRANQUILIDAD

PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK

orri pasatu berrak!

Kontzejua karrika, 11 | ITUREN | 948 450 287 | info@tresanea.com | www.tresanea.com

ileparrategia
EIDER
Estetika

Asteartea eta osteguna: 09:00 - 13:30
Asteazkena eta ostirala: 15:00 - 19:00
Larunbatetan: Goizez

Kontsejo, 6 | ITUREN | T. 630 633 445

ALTXUNEA ERRETEGIA

IREKITA:
Ostiral eguerdik igande eguerdira
Bista eguzketan eta besta berperetan
Uztailaren 15etik abuztuaren 30era,
egunero, ostalabarek ezak.

Kontsejo, 27 - ITUREN
T. 948 450 410

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → BESTABERRI EGUNEAN

Txoko politena eta gazta onena saritu dituzte aurten ere

Martuzeneako atariak eta Elizgaineko gazta

Fermin ETXEKOLONEA

Bestaberi egunean herriko txokorik politena aukeratzeko eta gazta lehiaketa egin dira aurten ere.

Flora Loiarteren Martuzeneako ataria izan da txokorik politena. Saritzat, bi lagunentzako otordua izanen du Errandonean. Bigarren saria, Mertxe Arbelaitzen Amolatxeko ataria.

Bi botil ardo eraman ditu saritzat. Ongi merezitako sariak biak, lan handia egiten baitute etxe ataria lorez apaintzen.

Gazta lehiaketan zortzi baserrik hartu zuten parte: Azkunuzolota, Parazelaieta, Olasenea, Iriarte, Serokoa, Martuzenea, Elizgain eta Tomas Elizalde. Lehenbiziko saria, Elizgaineko Lurdes Elizaldek eraman zuen (bi lagunentzako otordua Errandonean). Bigarren saria, Iriarteko Migel Santestebanek eraman zuen (bi botil ardo). Lehiaketa



ARGAZKIA: ERNESTO DOMINGUEZ

Martuzeneako atariak irabazi du herriko txokorik politenaren lehen saria aurtengoan.

ondotik ederki jan ziren gazta guztiak, beraz denak onazeudenaren seinale. Egun polita joan zen. Arratsaldean meza eta prozesioa ere izan zen herrian barrena. Aingeruek azkeneko agerraldia egin zuten eta musika ere izan zen herritarren eskutik.

San Juan bezpera

San Juan bezperako berendu-afaria estalpean egin behar izan zen, eguraldi kaxkarraren on-

dorioz. 30-35 hurrek egin zuten lehenik berendua eta gero guraoen txanda izan zen. Ernesto Dominguezek prestatutako pintxo morunoak goraiatzeko modukoak izan ziren. Ondotik, plazan suak piztu eta han ibili ziren saltoka, ezkilak jotzen zituzten bitartean.

Sahararrak gurean

Juainas eta Faustik ikasturtean zehar Duba ekartzen dute eta opo-

rretan Sahara aldera joan da aurten ere.

Orain, Joxemi Aranguren eta Ixabel Elizaldek Leila ekarri dute udako bi hilabeteak pasatzeko. Ongi etorri!

Mont Blanc-era

Mont Blanc-era joateko asmoa dute uztailearen 13tik 20rako astean Patxi Indakoetxea, Joseba Juanikorena eta Igor Babazek. Erronka handia hartu dute oraingoan.

SALDIAS

KIROLA → EKAINAREN 23AN

Mendi buelta egin dute 15 lagunek

Migel Baleztenaren gidaritzapean

Fernando ETXEBERRIA

15 mendizalek egin zuten ibilaldia ekainaren 23an, Migel Baleztenaren gidaritzapean. 08:30ean, plazatik kotxez

Gorostietako gainera joan ziren. Taldeko argazkia atera ondotik, gogoz ekin zioten aldapa gogoraren igoerari. Ehiztarien txabolatik pasa eta berriro Abaldeko Zemarra-iraigo ziren. Han bidegurutze batean, sei ibilbide daude aukeran. Bonozorrotz aldera joan zen



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Mendizaleak gustora, buelta egin ondotik.

taldea, Leurtzako urte-gira jeisteko. Urtegia inguratu eta berriro gorantz Zumardenara igo ziren,

handik etorritako bide beretik bueltan Gorostietara itzultzeko. Lau ordu eta erdiko ibilbidea

egin ondoren, Saldiasko ostatuan bazkaldu eta herriko festak zirenez, ederki pasa zuten.

ARANO

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 24TIK 27RA

Pilota, bertsoak, herri kirolak, trikiti festa eta herri afaria Santio Egunean

Festa aurreko igandean pala txapelketako finalak eta kotxe zaharren igoera

TTIPI-TTAPA

Santio festak umorez datoz aurten ere. Uztailaren 24tik 27ra ha-inbat ekitaldi antolatuta dituzte, baina aurreko igandean ere izango da festaren seinalea.

IGANDEA, UZTAILAK 21

- 11:00: Aranoko pala txapelketako finalak.
- 12:00: Kotxe zaharren igoera.

OSTEGUNA, UZTAILAK 24

- 18:30: jaiei hasiera emango dien itxaferua botako da udaletxeko balkoitik. Umeentzat bonba japonesak eta buruhaundiak.
- 19:00: artisau azoka karpan.
- 20:00: tortilla txapelketa eta herriko sagardo eta produktuen probaketa.
- 22:00: XXXII. Mustxapelketa San Roke elkartearen.

OSTIRALA, UZTAILAK 25 SANTIO EGUNA

- 11:00: Meza.
- 12:00: Arano-Goizuetako arteko betiko pilo-

ARTISAU AZOKA

Parte hartu nahi dutenek Udaletxera (948 514045) edo 645 727765 telefonora deitu behar dute lehenbailehen.

ta partida.

- 17:00: herri kirolak. Aizkoran Ruben Saralegi eta Ander Erasun; harriarekin Izeta II.
- 19:00: Bertso saioa: Julio Soto, Unai Agirre, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze. Gai-jartzen, Aritz Zerrain.
- 21:00: trikiti festa IZER eta ALABIERekin.
- 22:00: Herri afaria. Bakoiitzak berea moldatuta.
- 22:00: Ilargipeko zinea.

LARUNBATA, UZTAILAK 26

- Goizean: arkumea erretzen jarriko da plazan. Goiza girotzeko fanfarrea ibiliko da herrian barrena.
- 14:00: arkume jatea. (Txartelak erosteko azken eguna uztailaren 21a. Txartelak salgai daude Kontsejun, Goizuetako Amaia kafetegian, Herrerako Zumardin, Ereñozuko Irrintzin, Urnietako Kantoin eta Hernaniko Deportibon). Bazkal ondoren fanfarreakin kantu saioa. Arra-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Umeentzako bonba japonesak izango dira aurten ere txupinazoa leheru bezain abudo. Arkume jaterako txartelak, berriz, hilaren 21a baino lehen eskuratu behar dira.

tsaldean, puzgarriak.

IGANDEA, UZTAILAK 27

- 10:00: Meza.
- 11:00: Jubilatuentzat hamaiketako.
- 12:00: Pilota partidak.

- 14:00: jubilatuen bazkaria, Jexux Mari eta Xabier Legarreta bertsolariekin. Bazkarirako izena Kontsejun eman behar da uztailaren 21a baino lehen.

- 17:00: Umejolasak eta KARANOKea.
- 18:30 Txokolatada.
- 19:00 Arno ganadategiko aziendak.
- 23:00 TXIMELETA plaza taldea.

Aranoko Udalak
jai zoriontsuak opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei

GIZARTEA → LAUGARREN URTEZ

Karmen bezperako afaria egingen da plazan

Aurretik patata tortilla lehiaketa egingen da eta ondotik suak piztuko dira

TTIPI-TTAPA

Amabirjin Karmengo bezpera dela eta uzta-tilaren 15ean, asteartea-reakin, laugarren Herri afaria egingen da plazan 20:30ean eta 21:30ean, ohitura galdu gabe suak piztuko dira. Eguraldi txarrarekin, pilota pla-

zan egingen litzateke afaria. Sagardoa, ardoa, platerak, edalontziak, labanak... Udalak jarriko ditu.

Patata Tortilla lehiaketa ere egingen da 19:30etik 20:30era eta edonork parte hartu dezake. Izena eman daiteke Umore-Ona Elkartean edo Amaia Kafetegian uztailaren 13ra arte. Lehiaketa honetarako Udalak emango ditu patata, tipula eta arrautzak. Sua, zartagia eta behar den tresneria norberak eraman behar du.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Han-hemenka kantari dabil eta ibiliko da Umore Ona Abesbatza

Umore abesbatza Hernaniko San Joan festetan izan zen, Ereñotzuko Ozenki abesbatza eta Hernaniko Kantuzekin batera, kalez kale Aurorak kantatuz ekainaren 21ean, azken urte hauetako ohiturarekin jarraituz. Ekainaren 27an, berriz, Andoaingo Kaletxikiko festetan kantatu zuen, Berrozpe kaperan, Nuria Colomer-ek zuzenduta. Uztailaren 20an, azkenik, Peralta-Azkoienaren ospatuko den Nafarroako Auroron 38. Bilkurara joanen dira elkarrekin abesbata Hernani eta Goizuetako Abesbatzetakoak. Hernanitik 20 lagun eta Goizuetatik 30 joanen dira, 50 abeslari guzira.



ARGAZKIAK: ANGEL SALABERRIA

Aizkorbe eta Apezetxea txapelkun

Umore Onako Aitor Aizkorbe eta Antton Apezetxeak Erreterriako eskuz binakako txapelketa irabazi zuten, infantil mailan, ekainaren 21eko final estuan Añorgako Orbegozo eta Oliden-i 18-17 irabazita. Ekainaren 27tik 29ra Iscarren jokatuak Espainiako txapelketan, berriz, Nafarroako Federazioarekin Espainiako txapelkun izan dira, Gaztela-Leon, Andaluzia eta Errioxako ordezkarien kontra jokatu ondotik.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Frontoian ez ezik, trinketean ere txapelkun Iker Salaberria

Nafarroako Kirol Jokuetan, kadete mailako trinketeko finala jokatu zuen Iker Salaberriak, Iñaki Larretxea Errekako taldekidearekin bikote eginez ekainaren 24an. Berez, Saldias aritzekoa zen, baina hau ikasbidaian zegoenez, Ikerrek hartu zuen bere lekua. 35-7 irabazi zieten Zugarraldeko Ancin eta Baztan-i. Frontoian, Josetxo Ezkurra Memorialeko finala ere irabazi dute ekainaren 28an Iker Salaberriak eta Morenok (Titin III). 18-6 irabazi zieten finalean Exposito (Añorga) eta Cordon-i (Oberena). Astebete lehenago, Herrerako finala galdu zuen Salaberriak Gaskuerekin, 17-22, Lazkaoko Zubizarreta eta Usurbilgo Arangurenen kontra. Halere, finaleko jokalaririk onenaren saria jaso zuen herritarrik.

LEITZA

OSPAKIZUNAK → 50.000 EURO ZERTAN INBERTITU ERABAKITZEKO

Parte-hartze prozesuan jende asko eta proposamen ugari

Herritarrek egindako 138 proposamen jaso ditu udalak

JM BARRIOLA

Leitzako Udalak, beste kultura politiko bat sustatzeko herritarren parte-hartze prozesu bat jarri zuen martxan. Horretarako 50.000 euro zertan inbertituko lituztekeen galdetu diete herritarrei. Proposamen ugari jaso ziren arren, batzuk ezin izan ziren prozesu honetan sartu, proposatutako proiektuak udal konpotentzietetik kanpo zeudelako, askoz garestiagoak zirelako edota beste mota bateko lanke-ta eskatzen zutelako. Prozesuaren diseinu eta kudeaketaz Aztiker iker-gune soziologikoko Ar-



ARGAZKIA: IRATI BARANDIARAN

Ekimena estreinekoz egin dute herrian eta balorazio ona egin dute parte hartzaile guztiek.

kaitz Martinez de Albéniz arduratu da, herriko beste bi dinamizatzailekin batera (Aroa Huarte eta Markel Azkargorta). Prozesuak berak, erabakiak hartzeko moduak eta era kolektiboan jarduteak hartu du garran-

tzia. Hiru saio izan dira guztira, ekainean zehar ostiral iluntzetan burutu direnak. Guztira 138 proposamen jaso ziren, horietako batzuk errepikatuta. Azkenean alde zuririk zehaztutako irizpideak bete eta bidera-

garriak ziren proposamenak 34 izan ziren. 40 herritar inguruk hartu dute parte hartu dute eta balorazio ona egin dute bai parte hartutakoek eta baita Udalak berak ere. Orain proposatutakoak gauzatzen hasiko dira.

KULTURA

Eguraldiak baldintzatu zuen aurtengo San Juan sua

JM BARRIOLA

Giroak ez zuen askorik lagundu. Arratsaldean herriko gazteenek, ohiturarekin segiz, ingurutxoak dantzatu zuten, baina plazan behar baino gehiago egin zuten saioa. Iluntzeko herri afarian aurtengo jende gutxiago bildu zen, euria ari zuenez frontoian prestatu zuten lekua eta han afaldu zuten herritarrek. Mendialdea mankomunitatetik orri bat jarri zuen sortzen zen zaborra edukiontzizuzen-tarata botateko eskatuz, lehen aldia izan zenez jendeak ez zuen behar bezela egin, ea hurrengo urterako ikasten dugun. Ondoren suak plazan piztu ziren, udako solstizioaren magia berpiztuz.



ARGAZKIA: ONINTZA BENGOTXEA

Gorritarango pestetan, umore ona nagusi

Sanpedroak ospatu zituzten Gorritarango auzoan, aspalditik egiten den bezela. Bertakoek auzolan antolatzen zuten egun osoko egitaraua eta bisitari ugari bertaratu zen Basakabi aurreko jaigunera, pestaz gozatzea. Goizean herri-kirolak hartu zuten protagonismoa eta baita haur-jokoek ere. Eguerdian auzotarren bazkaria egin zuten. Ondoren mus txapelketa jokatu zuten eta iluntzean Dantzamusika saioa izan zuten. Usadioa mantenduz XXVI. Txintxurri txapelketa jokatu zuten 20:30ean eta komeriak komeria, aurtengoan Joseba Oterminek irabazi zuen.



ARGAZKIA: IPARMANK

65 hurrek eman dute izena Haur Txoko eta tailerretan

Urtero, uda iristen denean, Leitzako haurrentzat Haur Txokoa eta Tailerrak antolatzen dituzte euskara zerbitzuak eta gizarte zerbitzuak, Leitzako Udaren laguntzarekin. Aurtengo edizioan 66 hurrek eman dute izena, 19k Haur Txokoan eta 47k tailerretan. Uztaileko 4 astetan zehar hainbat ekintza eta jarduerarekin osatutako programazioa gauzatzen ari dira, herriko 5 begirale gazteek lagunduta.

GIZARTEA → BEHAR ZIREN BAIMEN GUZTIAK LORTU ETA GERO

Hogeita lau etxebizitza egiteko proiektua gauzatu nahi du Udalak

Apuntatzeko zerrenda irekiko da eta behar den gutxieneko pertsona kopurua osatzen bada, etxeak egiten hasiko lirateke

Juana Mari SAIZAR

Hainbeste denbora itxaroten egon ondotik iritsi dira herrian etxebizitzak egiteko baimen guztiak. Areson etxebizitzak egiteko proiektua

hasi zela badira urte batzuk eta azkenean egingo direla dirudi, horretarako orain etxeetan apuntatzeko zerrenda irekiko da, eta behar den pertsona kopuru minimoa osatzen bada etxeak egiten hasiko lirateke.

SEINA ETXEBIZITZAKO LAU BLOKE

Etxeen ezaugarriei dagokionez osotara 24 etxebizitza egingo dira, sei etxebizitzako lau bloketan banatuta, argazkiko simulazioan ikusten den bezala. Etxe guztiek hiru logela izango di-

tuzte, bi komun, sukaldea, egongela, balkoia edo terraza, trastelekua eta garajea.

Udaletik esan dutenez beraien helburua proiektua aurrera eramatea da, eta azken finen herrian etxea behar duen edonori aukera eta erantzun bat eman ahal izatea. Etxeen inguruan informazio gehiago nahi duenak udaletxera jo dezake edo 948510327 telefonora deitu, udaletxeko zenbakira. Argazki hauek eta planoak ere bertan daude ikusgai edonorentzat.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Itxura hau hartuko lukete etxebizitzek.

ARKUPEAK

GIZARTEA → 39 ELKARTEKIDEK EMAN DUTE IZENA

Argentinako altxorak bisitatzera joanen dira

Zaragozara, 120 bazkide joan ziren

Fernando ETXEBERRIA

Agerikoa da Arkupeak elkartekoak gustura ibiltzen direla harat eta honat. Ekainaren 19an

Zaragozan izan ziren eta bertako turismo eta gastronomiaz gozatze-ko aukera izan zuten. Exporako egindako eraikin modernoak eta txoko tradizionalak ere bisitatu zituzten basilika eta antzinako karrikak adibidez.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Zaragozako turismo aukera eta gastronomiaz gozatu zuten 120 elkartekidek.

ARGENTINARA HAMASEI EGUNEZ

39 elkartekidek eman dute izena eta ekainaren 26an bilera egin zuten Eroski Bidaiek-eko antolatzaileare-

kin xehetasunak aipatzeko: pasaportea egunean eduki behar da, bidairan iraupena 11 ordukoa da, ekipajeak gehienez 23 kilo izanzen ditu, arropa egokia era-

man beharko da... 16 egunez Valdes penintsula, Calafatea, Bariloche, Iguazu, Buenos Aires eta Ushuaia bisitatu dituzte, besteak beste.

EZKURRA

GIZARTEA → BI IRTEERA EGIN DITUZTE

Pausoz pauso, inguruak ezagutuz

Leitza eta Ezkurrako mendizaleak elkarrekin

Fernando ETXEBERRIA

Ezkurrako eta Leitza mendizaleek elkarrekin mendi irteerak egin dituzte ekaineko azken bi larunbatetan. Ekainaren 21 ean egin zuten lehendabiziko mendi buelta, 34 mendizale bildu ziren eta lau ordu eta erdiko bidea egin zuten. Goizeko 08:00etan Perralekutik abiatu ziren, Erakurriko bidetik eta lau ordu eta erdiko ibilbidea egin zuten. Hamarretakoa Ezkainen egin zuten, Olegitik segi eta Iruñarria igo ziren, han Eratsungo lurretan dagoen menhirra ikusi eta atsedent hartzeko aprobetxatu zuten. Duela gutxi berriutako dolmen handi batera joan ziren gero eta Eratsungo baserrietako pistari segiz, Ezkurrako Ola baserrian barna, Ezkurrako plazara iritsi ziren. 13:30ean Barranka ostatuan elkartu ziren eta bertan egon ziren arratsaldeko bostak arte. Migel Elizalderi eskerak eman nahi dizkiogu bideko oteak, osinak eta

sastrakak garbitzen aritu zelako, ibilbidea egiterakoan arazorik ez egoteko.

Ekainaren 28an berri, 52 mendizalek Ezkurratik Arantzarako bidea egin zuten. Jaiotzez arantzarrak izan, baina Leitza bizi diren Iparra familiakoek antolatutuzten irteera.

Perralekutik abiatu ziren goizeko 06:30ean eta Ezkainera igota, Olegitik barna joan ziren Iruñarri menhirrean atsedent hartzeko. Hiru orduko ibilbidea egin ondotik, Sorgin Zelaira iritsi ziren eta bertan hamarretakoa egin zuten. Loizateko ataka igaro eta Ekaitzara igo ziren gero. Han ezbehar tiiki bat gertatu zen, mendizaleetako batek, Jose Mari Etxeberriak eskuinte oinean min handia sentitu eta oinez segitzeko modurik ez zuelako. Hala ere, presaraino jeisteko modua izan zuen eta bertatik Jose Mari Elizaldekin kotxez Doneztebeko osasun etxera eraman zuen. Mendi-kuak ehun haustura zuela erran eta hamabost eguneko atsedendaldia gomendatu zion.

Mendizaleetako batzuk Mendaurko ermitara igo ziren eta zazpi



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA ETA GEREÑO

Kuadrila ederra bildu zen bi mendi irteeretan.

ordu eta erdiko ibilbidea eginda, denak Arantzako Aterpean elkartu ziren. Bertan

bazkaldu eta giro bikaina izan zuten bazkalondan kantari: Erribera, Txoria txori, Urepeleko

Artaia... Arratsaldeko seieta autobus hartu eta zortziak aldera iritsi ziren Leitza.

ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Ezkontza eta ezkon aurreko despedidak

Herrian ezkontza ezkilik entzun ez dugun arren, bi herritar ezkondu dira azken asteburuetan. Xabi (Mikelenek) eta Barranka ostatuko Eneko Gorostiaga beren bikoteekin ezkondu dira, lehenbizikoa Beran ekainaren 28an eta bigarrena Leitza uztailearen 5ean. Ezkon aurreko despedida ekainaren 21 ean egin zioten Xabiri eta herrian bertan, enfermeraz jantzita ikusi genuen kirolerako trebezia erakusten. Ezkurratik Goizuetara joan, Petritegin bazkaldu eta Hernanin bukatu zuten festa. Zorionak bi bikoteei eta izan zoriontsu!



DOMOSTIA / SAN SEBASTIAN
AGVARIUM
Carlos Blasco de Irujo Plaza DONOSTIA
Tel +34 943 44 00 99



OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 20AN

Dena prest dute Baztandarren Biltzarra ospatzeko aurten ere

‘Baztanen eskuara barra-barra’ leloarekin eginen da

TTIPI-TTAPA

Baztanen eskuara barra-barra leloarekin ospatuko da aurten ere baztandarren besta haundia uztailaren 20an. Egun osoko besta izanen da eta hori horrela izateko egitarau osatua prestatu du Baztandarren Biltzarra elkarteak.

Goizeko 10etatik aitzinera artisauen erakusketa egonen da ikusgai Pedro Axular karrikan. 11:00etan herri baikoitzak prestatutako orga apainduen desfilea hasiko da. 14:00etan Mutildantzak izanen dira Elizondoko plazan eta ondotik herri bazkaria izanen da Merkatuko zelaian. Bazkarirako txartelak uztailaren 16an, asteazkenean salduko dira goizeko 10etatik aitzinera, Baztandarren Biltzarre-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Jendetza espero da aurten ere Elizondoko karriketan.

ko egoitzan eta ez da erreserbarik eginen.

Bazkal ondotik ere izanen da zertaz gozatu. Bazkal ondoko jaialdian tonbolaren zozketa eginen da eta ez dira faltako mutildantzak, Baztango gaita, muxikoak eta larraindatza ere. 18:00etan hasita Trikidantz taldeak dantzaldia eskainiko du Laxoako plazan eta ondotik Laiotz taldeak hartuko dio lekukoa. Goizalde-

TXARTELAK

Bazkarirako txartelak uztailaren 16an, asteazken goizeko 10etatik aitzinera salduko dira Baztandarren Biltzarren egoitzan. Ez da erreserbarik eginen.

ko 1etatik hasita Tirri&Tery Djak ariko dira Laxoa plazako Baztandarren Biltzarren ostatuan.

Lekaroz-Elizondo Institutua ofizialki bitan berezia

Lehendik ere hala funtzionatzen bazuten ere, Nafarroako Gobernuak ofizial egin du bereizketa. Lekarozko institutuan DBH, Batxilergoa eta LHko formakuntza ziklo bakarra emanen dute eta Elizondokoan Lanbide Heziketako formakuntza ziklo ezberdinak.

KULTURA

Udako zinema zikloa abiatu da herriz herri

TTIPI-TTAPA

Duela urte batzuk Elizondoko Merkatuko plazara mugatzen zen Udako zinema zikloa, baina aurten herriz herri dabil uztaileko astelehen guztietan eta abuztuaren 4an. Pelikula guztiak 22:00etan hasiko dira. Arte eta Kultura egitarauaren barrenean borts emanaldi antolatu ditu Baztango Kultura Batzordeak.

Uztailaren 7an, *Prop & Berta* filma eskaini zuten Elizondon.

Uztailaren 14an, *Momo* filma izanen da ikusgai Berroetako frontoian.

Uztailaren 21ean, *Chef*, zorianaren erre-zeta filma ikusteko modua izanen da Irurita-ko trinketeian.

Uztailaren 28an, *Asterix eta Obelix*, maiestatearen zerbitzua filma eskainiko dute Azpilkuetako frontoian.

Abuztuaren 4an, azkenik, *Porco rosso* filma emanen dute Erratzuko frontoian.

Ongi pastu Baztandarren Biltzarra eta herriko bestak!!

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa
www.facebook.com/ttapi.net

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

BAZTAN

GIZARTEA → UZTAILAREN 4AN

Baztan Abentura Park ofizialki inauguratu dute

Europako pendulo-saltorik handiena estreinatu bidenabarkoan

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Beartzun auzoan Baztan Abentura Park inauguratu zuten ofizialki uztailaren 4an. BKZ Nafarroa Abentura da egitasmo honen sustatzailea eta Baztan bailara Abentura Turismoan lehenengo mailan kokatuko omen du. Aste Sainduan Tirolina erraldoiak (110 metroko altura eta 300-460 metroko luzera), haurrentako tirolina txikiak (3 urtetik aurrera) eta arroi aquapark naturala (rapelak, saltoak, txirristak) ireki ziren. Gan den ortzira-lean, berriz, hiru ekin-tza berrik ireki dituzte beren atak.

Alde batetik, Mega Pendulo haundia, ausartenei zuzendua, plataforma 100 metroko alturan kokatuta dago, Beartzungo arroilaren

gainekaldean. Europako saltorik handiena da. Munduko saltorik handienak Zelanda Berrian daude.

Pendulo handiaz gain bertze pendulo txiki bat ere badago, 30 metroko alturan eta saltoak, txirristak eta rapelak egiten diren presaren gainean. Adin txiki-koek salto egiteko aukera izanen dute gurasoen baimenarekin.

Hirugarren ekin-tza 200 metroko Bide Ferrata handia da, arroila-tik abiatu eta tirolinen lehenengo plataforman bukatzen dena. Duen segurtasun sistemari esker edozeinek egin dezake altuera handiko haitz handi bat igoz eta Beartzungo arroilan dauden ikuspegi zoragarriekin gozatzeko aukera emanez.

Baztango udaleko batzar nagusi, eskualdeko udal, Nafarroko Gobernuak, Bertizko Partzuergoak, Cederna Garalur eta zonaldean turismo arloan lan egiten duten ordezkariak izan ziren inaugurazio ekitaldian.



Ba al zenekien

Kontserbazio Eremu Berezi (ZEC) izendatu dituela Nafarroako Gobernuak Aritzakun-Urritzate-Gorramendi ingurua (6.032 Hektarea), Orabideako erreka eta Artxuriko zohikaztegia (191 Ha.) eta Baztan ibaia eta Artesiaga erreka (76 Ha.)



UTZITAKO ARGAZKIA

Solaslagunen agurra Amaiurren

Ikasturtean osotara 87 lagunek eman dute izena Solaslaguna egitasmoan, 16 taldek parte hartu dute eta hainbat saio interesgarri egin dituzte: Solaspoteoa, Donamariako mendi buelta, sagardotegia, eta akitzeko, egun osoko egitaraua Amaiurren, ekainaren 14an. Goizean 9 lagun bildu ziren Hika ikasteko ikastaro trinkoan, bazkarian 15 lagun izan ziren Elkartean eta ondotik bisita gidatua izan zuten Amaiurko herrian eta Monolitoan.



UTZITAKO ARGAZKIA ETA FOTO ZALDUA

Lehen jaunartzea eta sendotza Berroetan

Ekainaren 1ean Berroetako San Martin lehen jaunartzea egin zuten Julen, Maria Pilar eta Mikel ageri dira ezkerreko argazkian. Eskuinekoan, ekainaren 21ean sendotza egin zuten Saioa, Olaia, Laura, Ander, Ainhua, Uxo eta Ekaitz, Javier Azpiroz Elizondoko apezarekin, Ramon Apezetxea apezarekin eta honen iloba, Jose Antonio Apezetxea apezgaiarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herrietako eskoletako ikasleen kurtso akabailako kontzertua

Baztango Herrietako Eskoletako ikasleek, kurtso akabailako kontzertuaren ikuskizuna aurkeztu zuten ekainaren 17an Irurritako Aranabia pilotalekuan. 3-12 urte arteko 316 ikasleek Axun eta Judithen zuzendaritzapean, kantak, dantzak, jokuetan oinarritutako lana, euskal eta kantu afrikarrak txandatu, ikasturtean zehar Afrika proiektuko musika eta gorputz hezkuntzako lana erakutsi zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Eremu egokia bilatzeak luze jo du.

GIZARTEA → PROZESU LUZE BATEN ONDOTIK

Udalak sustatutako baratze ekologikoak martxan dira

Elizondoko Eluts inguruan 45 lursail eskaintzen dira eta 24 erabiltzaile ari dira lanean

TTIPI-TTAPA

Prozesu luze baten ondotik, Baztango Udalak, azkenean, udal baratze ekologikoen eremua abiarazi du eta dagoeneko, 24 erabiltzaile ari dira beren lur-zatietan lanean. Eluts ize-neko parajea den 45 lursail eskaintzen dira eta, poliki-poliki, gainerako lur-zatiak ere banatuko dira eskariaren arabera. Udal baratzeak egiteko 17.000 euroko inbertsioa egin du Udalak. Horietarik, 6.000 euro Cederna-Garalurrek Europako Leader programatik lortu dira. Inbertsio horrekin pistak egin, ura eraman eta lurra prestatu

dute. Lursail batzuk ikastaroetarako eta gizarte zerbitzuetarako gordeko dira.

Lur-zatiak banatzeko maiatzaren 20an zozketa egin zen eta, modu horretan, erabiltzaile bakoitzak berari dagokion lurra eskuratu zuen. Momentu horretatik aitzinerat eskaera egin eta eskatzailak lursaila automatikoki eskuratu du erabiltzari diren lur-zati guztiak banatu artio. Udal baratzeak arautzeko 2013ko urtarrilean Baztango Batzar Nagusiaren eta Udalbatzaren onikusiaz ordenantza onartu zen.

Baztango udalak udal baratzeen proiektua 2012. urtean hasi zuen. Alta, proiektua aurkeztu eta berehala eginen zela uste bazen ere, prozesua konplikatu zen Elizondo inguru herri-lur edo lur publiko egokirik ez baitzen eta eremu egokia bilatzeak luze jo du.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Otondotarrak Erratzun bildu dira aurtengoan

Mundu osoan Otondo abizena daramatenek seigarrenez bildu dira. Aurten, Erratzun egin dute bilkura ekainaren 21ean. Zehazki, Gorostapoloko Otondoan duten jatorrizko sortetxea Baztanen ez ezik, Europan eta Amerika osoan hedatuak dauden Otondotarrek. Hildakoen aldeko meza aditzeaz gain, Erratzuko Bestaberri eguneko prozesioan ere parte hartu zuten, Oronozko Urgainen bazkaldu aitzinetik. XVIII. mendean joan ziren lehenbiziko Otondotarrak Baztanetik Ameriketara, Argentina eta Txile aldera.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Oronozko San Martin ikastetxeko ikasle ohien bilkura

Martin Urrutia Ezkurra ongileak bi ikastetxe eraiki zituen Oronozen. Gaur egun, bietako bakar bat ere ez da erabiltzen hasierako helburuendako, baina halere, San Martin ikastetxeko ikasle ohiak urtero biltzen dira, kontu zaharretaz gogoratzeko eta giro onean elkartzeko. Aurtengo bilkura ekainaren 21ean egin zuten José Luis Casla ikasle ohiak emandako meza aditu zuten, Jesus Rekalde marista organo joz eta Mari Carmen Torroba sopranoa kantari zela. Ondotik, urteko batzarra egin zuten Elizondoko Javier Alzugurenen gidaritzapean. Cabanillasko pilota eskolakoek jokaturako zesta punta partida ikusi ondotik Urgainen bazkaldu zuten. Bazkalondoan ere giro ederra izan zuten.

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444
M. 629 659 583
ARIZKUN

Pierreseneea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORNOZ · MUGAIRI

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → UDA GARAIRAKO

Museo eta lezearen ordutegia zabaldu dute

Uztailaren 15etik irailaren 15era egunero edekiko dute lezea 10:30etik 20:00etara

Margari eta Koro

Udako egunak iritsi direnez, Sorginen museoaren eta lezeko ordutegia luzatuko dute uztailaren 15etik irailaren 15era arte. Hala, lezea egunero egonen da edekia 10:30etik 20:00etara eta museoa asteartetik igandera 11:00etatik 19:30era. Astelehenetan etsia egonen da.

Kantuei esker Bestaberri bereziak aurten

Aurtengo Besta-berriko meza eta prozesio-neak berezi eta ikusgarriak izan dira, Fermin Iriarterek zuzentzen duen kantari talde batek parte hartu duelako (San Fermin ikastolako guraso talde bat). Mezan aritzeaz gain, prozesioan ere lagundu zuten, eta behin dena finitu ondoren, bertze gisako kantutan ere aritu ziren, lehenbiziko elizako atean eta gero Marixan ostatuko atean. Aitzinetik, atsaldapalean, Barrantxeko atean Maria Jesusi kantu bat eskaini zioten.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

San Fermin ikastolako guraso taldea kantari, Fermin Iriarteren zuzendaitzapean.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Besta Berrirako apaindu zen Beheitiko karrikako kapera



UTZITAKO ARGAZKIA

Antzerki taldea Huescako Sallent de Gallegon

Gan den ekainaren 14an, antzerki taldea Huesca aldean ibili zen, eta Sallent de Gallego herrian bi emanaldi eskaini zituen.

UZTAILAREN 28AN

Txistu kontzertu eta emanaldi berezia eskainiko dituzte lezean

Margari eta Koro

Uztailaren 28an, 18:00etan *Akelarre tierra* izeneko txistu kontzertua eskainiko dute lezean. Kontzertuaz gain, narratzaile eta aktoreak ere izanen dira. Mitoak, kondairak, sorginak eta lamiak dira gaietako batzuk eta eskainiko diren pieza batzuk kontzertu huntarako espreski eginak dira. Hauek joko dituzte: Guridiren *Amaia* operaren ezpata dantza, *Maddi Amalurra* (Jokin Lekunberri), *Zugarramurdi 161* (Iñigo Casaliren lan bat, non lezeaz, gauaren iluntasunaz eta kilkerren kantuaz hitz egiten den), *Scape Symphony* (David Johnstone eskoziarrarena) eta kontzertuari akabera emateko, Pablo Sorozabalen *Gerrikako hileta-martxa* joko dute.

Alex Ruiz da ekitaldiko eszena-zuzendaria, eta Raul Madinabeitia musika zuzendaria.

KIROLA → FINALA IRABAZI DU SPUC RUGBI TALDEAK

Frantziako ohorezko promozio xapeldun

Tartasen jokatu zen finalean 36-24 irabazi zion Gabarret-ko taldeari

Franck DOLOSOR

Senpereko bestak usaian baino aste bat lehenago hasi dira aurtentzen, aitzineko asteburuan, ereiaroaren 22an Frantziako xapeldun bilakatu baitziren SPUC herriko rugbi taldeko jokalariek. Tartasen jokatu zen finalean Senpere nagusitu zaitzion Gabarret-ko taldeari 36 eta 24. Berehala senperrak gaitzeko besta ospatu zuten, lehenik Lan-

desetako kirol zelaian berean eta arratsean herriko karrika nagusi- an eta herriko etxean. Mundua bildu zen orduan gutitan ikusten den besta ikusgarrian. Rugbilariek denboraldi zinez ona egin dute nahiz eta urte hastapenean arazoak izan zituzten taldea muntatzeko. Dena den, kirolzaleek ez dute amore eman eta beren lanak garaipena eta poza ekarri ditu 1984 eta 1992an jadanik gertatu zen bezala. Jokalariek ospakizunez ospakizun ibili dira egun hauetan eta bertsuak ere moldatuak izan dira, *Senpere Kantuz* airearekin kantazeko gisan.



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Tartasen irabazi ondotik besta egin zuten SPUCeko errugbilariek eta zaleek, baina herrira bueltan egin zen ospakizunik handiena. Senpereko karririk berdez margotu ziren eta plazan harrera beroa eskaini zieten xapeldunei.

Bota bertsoa

Airea: *Senpere kantuz*

Senpere xapeldun!

Landesetatik etorri,
zauku berri ona
Gaskoinak galtzaile apal,
nausi eskualduna
Suhar, lehial, egin lana
Senperraren garaipena
Goresmenak, biba xapelduna!

Balonaren inguruan,
bildu zonbat gizon
Uztarketak lasterketak,
ostiko hor konpon
Zelai erdian "campeón"
Herritarrentzat zorion
Errotik denak, Bortitz eta On!

Xapelketa horietan,
behar da ari fin
Bakotxa bere tokian,
azkarra ta arin
Ekipa muntatu ezin
Beti sinets, joka berdin
Eskuz esku, denak elgarrekin!

Senperen pilota maita,
eskuara ta dantza
Aiten bidea hartzeko,
gazteria gaitza
Amak bezain alai mintza
Bihotzean esperantza
Gure arteko adiskidantza!

Senperrak gare, rubiaren alde, joko paregabe
Atxik denek erne, ezin eman amore
Aupa Senpere!

JATETXEA-ERBETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABARRO-DENDA

Egunero irekia:
09:00etatik
02:30era

Dantxarinearik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

SARA

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 19AN

Aurten ere txapelketa egingen da Pottokaren Besta egunean

Ondotik bazkaria eta animazioa izanen da

Joana GERENDIAIN

Urtero bezala pottokaren besta egingen da Saran, aurten uztailaren 19an tokatzen da. Goizean, pottokak plazan ikusten ahalko dira eta txapelketa bat egingen da. Ondotik bazkari bat izanen da eta arratsalde osoan animazio ezberdinak antolatuko dira.

Rugby touch

Sarako gaztetxeak, uztailaren 19an larunbatarekin, "rugby touch" lehiaketa antolatu du errubi zelaian. Ekipak 7 pertsonakoak gehi or-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

90 urte bete ditu Larrungo Tren ttiptiak

1908koa omen da Larrungo gailurreraino trenbidea eraikitzeko asmoa. 1912an ekin zioten ideia gauzatzeari, baina lan administratiboak eta gerrak 1919ra arte gibelerratu zuen saiakera. Obra 1924an bukatu zen. Urte hartako urtarrilaren 7an, probak egiten ari zirela, lokomotora burdinbidetik atera zen istripua eragin eta egitasmoa kolokan jarri. Urte hartako apirilaren 25ean Iturriederretarainoko zatia eta ekainaren 30ean tontorrerainokoa inauguratu zuten arte.

dezkariak izan behar dira. Izena emaitan ekipako kide bakoitzak 5 euro ordaindu beharko

ditu. Lehiaketa 13:00etan hasiko da. Bertan musika eta ostautua izanen dira eta ogi-

tartekoak ere salduko dira. Errubi zelaieko aldagelak idekiak izanen dira jokalarientzat. Ize-

na emateko zenbaki hauek deitu behar da: 06.74.05.14.66 edo 06.15.34.00.15. Nahi baduzue momentu goxo bat pasatu lagunen artean animatu!

Zaharkin eta selauru hustea

Uztailaren 12tik uztailaren 14ra plazan eta polikiroldegian 300 bat erakusketarik selauru huste handi bat egingen dute. Merkatu horretan bakarrik profesionalak saltzen ahalko dituzte puskak.

Kantaldia

Uztailaren 17an Ainhoako Atsulai abesbatzak kantaldi bat emanen du Santa Katalinako kaperan. Kantaldia gaueko 09:30ean hasiko da.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -



Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Solnekoak
- ♥ Berako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425



kukuka
KUPA KUPAZIENETAKO

Merkealdia
Merkealdia
Merkealdia
Merkealdia

Zapagarria, 1 • DONEZTEBE • 948 450 252

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

ttipi-ttapa
Koskontako bidea, 7 | 65949 | 948 635 458

EZKONTZAK

Richard Brazete eta **Maitane Gereño**, Leitza eta Aresokoa, ekainaren 21ean Areson.

Iñigo Leoz Losa eta **Ainhoa Apezetxea Telletxea**, Hondarribia eta Arantzakoa, ekainaren 21ean.

Roberto Jauregi Etxeberria eta **Ana Belen Gartxitorena Arraztoa**, Almanozkoak, ekainaren 28an, Sunbillan.

Olivier Voineson eta **Auriane Branteghem**, Sarakoak, ekainaren 7an.

Cedric Solene eta **Pantxita Mestelán**, Sarakoak, ekainaren 21ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Lide Urkiola Mariezkurrena, Leitza, ekainaren 19an.

Aitor Bengoetxea Leizagoien, Zugarramurdikoa, ekainaren 25ean.

Unai Korta Irtzoki, Alkaiagakoa, ekainaren 17an.

Leire Olagarai, Sarakoa, ekainaren 15ean.

Andoni Xan Demarcq, Sarakoa, ekainaren 2an.

Cloe Rey Hurtado, Doneztebekoa, ekainaren 16an.

Aiora Mutuberria Salaberri, Doneztebekoa, ekainaren 24ean.

Eneko Mutuberria Juanena, Doneztebekoa, ekainaren 25ean.

Ainara Fernandez Telletxea, Donamariakoa, ekainaren 25ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Maria Castillo Castellón, Elizondokoa, ekainaren 17an, 98 urte.

Pedro Goñi Saharrea, Oharriz-Lekarozkoa, ekainaren 17an, 90 urte.

Maria Asuncion Arburua Sanzberro, Etxalarkoa, ekainaren 20an, 89 urte.

Joaquin Irazoki Izagirre, Lesakakoa, ekainaren 27an, 52 urte.

Saturnino Pikabea Altugarai, Bera, ekainaren 23an, 85 urte.

Phillpe Goienetxe, Sarakoa, ekainaren 14ean, 42 urte.

Joxe Iturria Lasaga, Lesakakoa, uztailearen 2an, 99 urte.

Bernabé Azpiroz Irazusta, Leitza, uztailearen 1ean, 96 urte.



Asunción ARBURUA SANZBERRO

Etxalarren, 2014ko ekainaren 20an
89 urterekin

*Erein duzun maitasunak
bere fruitua izan duelako*

ZURE FAMILIA



Oroigarriak egiten ditugu

ttipi-ttapa Koskontako bidea, 07-1. | 31770 LESAKA | 948635458

PILOTA → EKAINAREN 28AN DONEZTEBEN

Joxe Ezkurra Memorialaren finalak jokatu dituzte

Bortz kategorietako txapelak erabaki ziren

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 28an jokatu ziren Josetxo Ezkurra zenaren omenez 24. aldiz antolatutako pilota txapelketako finalak Doneztebeko pilotalekuan. Aurtun, Erre-

ka elkarteak arduratu da antolaketa eta 300 bat lagunek ikusi zituzten azken partidak.

Benjaminetan, Lazkaoko Arrillaga eta Zubizarretak 18-12 irabazi zieten Txukun-Lakua-ko Otxoa eta Rivas-i.

Alebinetan, Azpeitiako Ilunpeko Labaka eta Alberdik 18-9 irabazi zieten Ardoiko Igoa eta Perez-i.

Infantiletan, Usur-



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Txapelketan parte hartu duten pilotarietako batzuk, antolatzaile eta laguntzaileekin.

bilgo Aranguren eta Oiarpeko Sein-ek 18 eta 4 irabazi zieten Erreka-ko Telletxeari eta Ilunpeko Iriarteri. Azpeitiarra, Apezetxea goizuetarraren ordeztu zen finalean.

Kadetetan, Erreka-ko Salaberriak eta Morenok (Titin III) 18-6 irabazi zieten Añorgako Exposito eta Oberena-ko Gordon-i.

Jubeniletan, Marki-

nako Arrizabalaga eta lurretako Otaduyk 22 eta 14 irabazi zieten Zegamako Matxin eta Errekako Medinari. lurretako pilotaria Urizar markinarraren ordeztu eta Zegamako pilotaria Errekako Bakaikoaren ordeztu ziren finalean.

Eskuko pilota partidez gain, Doneztebeko erremonte eskolakoek ere partida bat jokatu zen.

Partiden ondotik, Luis Martinek emandako bi urdaiazpiko zozketa ziren eta sari banaketan izan ziren Julen San Miguel eta Koteto Ezkurra erremontelari profesionalak eta Jon Jaunarena esku pilotaria ere. Nafarroako eta Euskadiko Pilota Federazioko presidentek, Montxo Iriarte eta Patxi Jauregi ere Donezteben izan ziren.

PILOTA → BURUZ BURUKO FINALA

Julen Retegik nahi eta ezin Irujorekin

22-9 irabazi zuen Iberokoak eta banakako bosgarren txapela jantzi

TTIPI-TTAPA

Ongi merezita irabazi du Juan Martinez de Irujok bosgarren aldiz buruz buruko txapel nagusia. Ekainaren 29an Donostiako Atano III-ean jokaturako finalean 22-9 irabazi zion Ju-

len Retegi eratsundarri. Ongi aritu zen Retegi Bi, baina Irujok ez zuen ezusterako zirrikiturik utzi. Ederki aritu zen Iberokoa partidaren lehen zatian (10-1), eta abantaila kudeatu zuen ondoren, nahiz Retegi Bi 10-6ra hurbildu.

Tanto ederrak ikusi ahal izan ziren, baina pilotaren batek bote handiegia ere hartu zuen, Irujok errebotera sartu eta Retegik altxatu zuena, horren erakusgarri.



ARGAZKIA: NOTICIAS DE GIPUZKOA

Retegi Bi azpitxapelduna eta Juan Martinez de Irujo txapelduna, podiumean.

Irujo pozik mintzatu zen finala irabazi ondotik: «Lan handia egin behar izan dut txapelketa osoan, eta bost txapel ez dira egunero irabazten». Eskuin eskuari esker irabazi duela nabarmendu zuen: «Ongi hasi naiz; eroso egotea kostatzen ari zitzaidan, baina oso ongi nuen es-

kuina, eta horri esker irabazi dut». Retegizoritik: «Lan handia egin behar izan dut txapelketa osoan, eta bost txapel ez dira egunero irabazten». Eskuin eskuari esker irabazi duela nabarmendu zuen: «Ongi hasi naiz; eroso egotea kostatzen ari zitzaidan, baina oso ongi nuen es-

kuina, eta horri esker irabazi dut». Retegizoritik: «Lan handia egin behar izan dut txapelketa osoan, eta bost txapel ez dira egunero irabazten». Eskuin eskuari esker irabazi duela nabarmendu zuen: «Ongi hasi naiz; eroso egotea kostatzen ari zitzaidan, baina oso ongi nuen es-

galtzeagatik triste» zegoela adierazi zuen: «Irujo fuerte hasten da partida gehienetan, eta gero zaila izaten da buelta ematea». Aitortu zuen finalean ere hala gertatu zaiola: «Hasieran egon da gakoa; abantaila handia kendu dit, eta horrela zaila da irabaztea».

ATLETISMOA → EMAKUME KORRIKALARI TALDEA

Erreka EKTk helburuak bete ditu lehen denboraldian

Eskualdeko eta eskualdez kanpoko hainbat probatan parte hartu dute

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko urrian hasi zen lanean Errekako Emakume Korrikalari Taldea (EKT), atletismoa praktikatzeko emakumeek kirolean gero eta gehiago parte hartzeko helburuarekin. Lehenbiziko urte honetan itxaropen guztiak bete eta gainditzen ari dira.

Hasierako bilera deitu zutenean ez zuten garbi zenbat jende hurbilduko zen, baina 23 emakume joan ziren. Hortaz, bi talde egitea erabaki zuten: bat hasiberriekin eta bertzea korrika ibiltzeko ohitura handiagoa zutenekin. Gaur egun 20 korrikalari ari dira EKTren ize-nean, 14 urtetik hasi eta 49 urte bitartekoak.

Ikasturtea hasteko Manttalaren esperientzia eta babesak izan zuten eta Idoia Maritxalar, Iñaki Pikabea, Patxi Irazoki eta Cristina Arbués izan ziren taldea martxan jarri zuten lehen monitoreak. Baina denboraldia aitzinera zihoan neurrian, lana eta

taldea bateratzeko zailtasunak zituztenez, Iñigo Arregi doneztebarrak hartu zuen taldearen ardura eta bera izan da monitorea denboraldi bukaera bitarte.

Mantale taldetik jakinarazi zutenez, «progresioa sinestezina izan da, 10 minutu korrika egiten hasten dira eta denboraldi bukaerako 45 minutu lasterka aritzeko eta edozein proba egiteko gai dira». Eta horrelaxe izan da.

Bertzeak bertze, aurtan Doneztebeko San Silbestre lasterketan, Leitzako Krosean, Donostiako Lilatoian eta, azkenik, Doneztebeko Krosean hartu dute parte. Heldu den denboraldiari begira, helburu zabalagoak ere bete nahi dituzte, eta Sunbillan irailan egingen den 800 Dukado lasterketaren antolatzaileek egindako gonbidapenari baiezkoa eman diote. Aipagarria da Erreka EKT taldeko emakume gehienek parte hartu dutela Doneztebeko Krosean eta gisa honetara, bertze pertsonak ere parte hartzera animatzeko erreferente bilakatu dira. Horixe baita helburuetako bat, kirola sustatu, ikusarazi eta emakumeak praktikatzera bultzatu. Lehenbiziko helburua, halere, ongi pasatzea, bertze per-



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

Errekako Emakumeen Kirol Taldeko kirolari gehienak Doneztebeko krosa hasi baino lehen. Beheitian, hiru taldekide helmugaratzen.

tsonak ezagutu eta kirola eginez une goxoak pasatzea da.

Denboraldia akitzeko bazkaria ere egin zuten eta entrenamendu dinamikarekin segitzekotan gelditu ziren: urri bitarte beraien kabuz biltzen segituko dute eta urritik aitzinera Iñigo Arregik hartuko du entrenamenduen ardura. Dena den Erreka EKTtik garbi utzi nahi dute emakume gehiagorendako ere atea zabali dituztela eta horretarako Erreka Kirol Elkartearekin harremanean jartzea aski da.

ERREKA EMAKUMEEN KIROL TALDEA

Edurne ANTIZAR IBARRA	DONEZTEBE
Jaione ANDUEZA INTXAURRONGO	DONEZTEBE
Ixiar AGIRRE DEL RIO	DONEZTEBE
Amaia JORAJURIA MENDIBURU	DONEZTEBE
Yanire MIGELTORENA EZKURRA	DONEZTEBE
Saioa DIOSDADO MIGELTORENA	DONEZTEBE
Itziar MARTIN IBARRA	DONEZTEBE
Elena EZKURRA ZUNZARREN	DONEZTEBE
Elena ZABALA EZKURRA	DONEZTEBE
Maitte AGINAGA IGOA	DONEZTEBE
Isabel ELIZALDE ARRETXEIA	DONEZTEBE
Axun ZABALETA ALDUNTZIN	DONEZTEBE
Ana Mari ARREGI ALBERRO	DONEZTEBE
Juana Mari MUÑOZ AMORENA	DONEZTEBE
Leire UTERGA LABIANO	DONEZTEBE
Leire ORTUOSTE	DONEZTEBE
Isabel LAKAR	LEGASA
Montse PATXA	DONEZTEBE
Rakel GARRIDO	DONEZTEBE
Arantxa EZKURRA	DONEZTEBE

uztailak 10 - 24

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Erakusketak



BERTIZ | 2014.07-2014.08

Euskal Artzainak Ameriketako elkartearen erakusketa

Artzainen bizitza argazkietan izenburupean erakusketa bat paratu dute Bertizko Natur Parkean. Argazkiez gain, ardi kanpo bat ikusteko aukera ere izanen da.

Ospakizunak



SARA | 2014.07.19

Pottoka lehiaketa, karrika animazioa eta zikiro jatea

Aurten ere Sarako Pottoka Elkar-teak lehiaketa antolatu du uztailearen 19rako. 09:00etatik aitzinera egingen da plazan eta animazioa eta zikiro jatea ere egingen dira.

Zinema



BAZTAN | 2014.07.07-08.04

Udako zinemaren baitan, hainbat pelikula herriz herri

Aurten ere film ugari eskainiko dituzte uztailean eta abuztuan Baztango herrietan. Kultura Baztordeak astelehen arratsetara-ko hitzorduak egin ditu.

Uztailaren 14an *Momo* pelikula ikusgai 22:00etan Berroetako frontoian.

Uztailaren 21ean *Chef, zorionaren erre-zeta* pelikula ikusgai 22:00etan Irurritako trinketean.

Uztailaren 28an *Asterix eta Obelix, maies-tatearen zerbitzura* pelikula ikusgai Azpil-kuetako frontoian 22:00etan.

Abuztuaren 4an *Porco Rosso* pelikula ikusgai 22:00etan Erratzuko frontoian.

Ospakizunak

ELIZONDO

Baztandarren Biltzarra besta handia

Uztailaren 20an. Goizean hasita, artisau erakusketa, orga desfilea, Mutildantzak, herri bazkaria, dantzaldia arratsaldean eta gauz eta DJ-ak izanen dira.

SARA

Errugbi elkartearen besta

Abuztuaren 2an plazan.

GOIZUETA

Karmen bezperako besta

Uztailaren 15ean patata tortilla lehiaketa, herri afaria, suak...

Lehiaketak

SARA

Pottoka lehiaketa

Uztailaren 19an. 09:00etatik aitzinera frontoian.

MALERREKA

Gazteendako film labur lehiaketa

Irailaren 15era arte aurkez daitezke lanak Osasun Zentroan, Mankomunitatean edo

Erakusketak

SARA

Margo eta eskultura erakusketa**Uztailaren 21etik**

31ra Lur Berri gelan, Sarako Larrungo Koloriak-en eskutik. 10:00-12:30 eta 16:00-19:00.

BERTIZ

Euskal Artzainak Ameriketako elkartearen erakusketa

Abuztuaren 31ra arte Bertizko Jauregian ikusgai, 10:30etik 19:30era.

BERA

Julio Caro Barojaren inguruko erakusketa etnografikoa

Uztailaren 31tik abuztuaren 14ra Kultur Etxean.

Antzerkia

BERA

Bisita antzeztua

Uztailaren 24an Julio Caro Baroja gogoan eta EHUko udako ikastaroen barne, herriko plazatik Itzearaino bisita antzeztua, 18:00etan.

Ikastaroak

LESAKA

Kirol jardueren teknikari izateko formazio ikastaroa langabeentzat

Abuztuaren 11tik azaroaren 3ra. 16 eta 25 urte arteko langabeentzat 300 orduko doako ikastaroa Lesakako kiroldegian. Izenematea uztailearen erdialdera arte Doneztebeko Enplegu Bulegoan. Informazio gehiago: Urdi Eskolan (948 101625 edo *escuela*

formacion@urdisl.com).

LEITZA

Sormena lantzeko tailerrak

Uztailean adinaren arabera taldetan banatuta.

Kontzertuak

ETXALAR

Erramun Martikorenarekin kantaldia

Uztailaren 13an elizan 12:30ean.

SARA

Atsulai abesbatzaren kontzertua

Uztailaren 17an Santa Katalina Kaperan izanen da Ainhoako abesbatza, 21:30ean.

Saiberri taldearen kontzertua

Uztailaren 24an elizan, 21:30ean. Sartzea 5 euro.

Zinema

BAZTAN

Udako zinema herriz herri

PROPOSAMENA

BAZTAN

Baztandarren Biltzarra uztailearen 20an

Baztandarrendako hain handia den eta Euskal Herriko jendearendako hain ikusgarria den besta uztailearen 20an ospatuko dute Elizondon. Urtero bezala, hama-bortz herrietako bizilagunek egindako karroza ederrekin desfilea egingen dute karraketan barne, dantza eta musikaz alaiturik. Ondotik bazkaria egingen dute Merkaturko Plazan. Ez da animaziorik faltako.



Doneztebeko Liburute-
gian CD batean edo *la
burmetraiak@gmail.
com*-era igorritz. *Bestaz
eta lagunez gozatu al-
koholik edan gabe edo
gutti edanda* izenburu-
pean, 12 eta 24 urte
artekoendako da.

Bestak

LESAKA

Sanferminak

Uztailaren 4tik 10era.
Xehetasunak
617. alean.

ITUREN

Herriko bestak

**Uztailaren 18tik
21era.** Xehetasunak
30. orrialdean.

ELIZONDO

Santioak

Uztailaren 24tik 28ra.
Xehetasunak erdiko
gehigarrian.

ARANO

Santioak

**Uztailaren 20an eta
24tik 27ra.** Xehetasu-
nak 32. orrialdean.

ELGORRIAGA

Santioak

Uztailaren 24tik 27ra.
Xehetasunak erdiko
gehigarrian.

Azokak

SARA

Ortzegunero azoka

**Uztailaren 3tik iraile-
ra** 09:00etatik aitzine-
ra bertako produktuen
azoka frontoian.

**Zaharkin eta selauru
hustea**

Uztailaren 12tik 14ra
plazan eta kiroldegan.
300 bat profesionalak
parte hartuko dute.

Gertaera guztiak
ikusteko, begiratu:
www.ttipi.net
(agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK




Karlisten Altxorra

GAIZKA AROSTEGI

Elkar, 2014

> Alex eta Irati dira *Karlisten Altxorra* abenturazko Aleberri honetako bi protagonista gaztetxoak. Alex udako oporraldian Baztango familia baten-
gana bidaltzea erabaki du bere aitak; ikasturte osoa alferrik galdu du. Bere jarrera zuzentzeko ohiko girotik kanpo egun batzuk ematea ongi etorri-
ko zaiola uste du, hau da, Irati eta bere amaren etxean. Hasiera batean, Alexek erabat zapuztuta onartuko du egoera berria, lehenbailehen handik joatea baino ez du buruan izanen. Ustekabean, baina, bere burua abentura kitzikagarri batean murgilduta ikusiko du. Berrehun urte lehenago gal-
dutako Altxor baten bila jartzea tokatuko zaie bi lagunei, eta bide batez bertze Altxor baliotsuago bat aurkituko dute: maitasuna. Gaizka Arostegik idatzi du eta Julen Ribasen marrazkiekin hornitua da 10 urtetik goitikoentzako liburu hau.




Omenez

INCANSABLES

Agorila, 2014

nor gutti izanen da Incansables txaranga ezagu-
tzen ez duena, 42 urtez hainbat bazterretara ailega-
tu baitira bere doinuak. Azken diskoa orain dela 15
urte kaleratu zuten (*3 kide*) eta berriki *Omenez* izene-
ko bertze bat egin dute. Txarangako kide ohi guztiei
eskaini nahi izan dietelako paratu diete izen hori dis-
koari; 1971n txaranga sortu zuten bartz lagunei eta
bereziki Kanariori, bera delako hasieratik dagoen ki-
de bakarra. Baina hainbertze urtez txaranga bizirik
egoteko lanean eta jotzen ibili diren kide ohie ere
eskaini diete. Gisa guztietako abestiak bildu dituzte:
abesti mexikarrak, klasikoak eta ez hain klasikoak,
abesti latinoak, cumbiak eta kubatarrak, musika
amerikarra, rocka, popurriak, film klasikoetako abes-
tiekin egindako kalejira, italiar tarantelekin bertze ka-
lejira bat, gaur egungo euskal talde ezagunen ber-
tsioak (Esne Beltza, Betagarri, Ze esatek...), joan den
urtean hil zen Sietemesinori eskainitako Habanera,
eta baita fandango eta arin arinak, kalejirak... ere.

Internet



.EUS Domeinuaren
Aitzindariak

WWW.DOMEINUA.EUS

Euskara, euskal kultura eta Euskal Herria sarean
Eta munduan ikusgai bilakatzeko asmoz, sortua
da .eus egitasmoa. Eta dagoeneko aktibatua dago
sarean, domeinu hori erabiltzearen aldeko apustua
egin duten 92 entitateren bitartez. 2013ko ekainean
onartu zuen ICANN erakundeak .eus domeinuaren
eskaria eta ibilbide baten hasiera izan zen. 2014ko
apirilean *www.domeinuak.eus* webgune berria akti-
batu zuten eta orain, berriz, hurrengo urratsa eman
du PuntuEus Fundazioak. .eus domeinuen erregistroak
hiru fase ezberdin izanen ditu eta horietan lehena da
orain martxan jarri dutena, Aitzindarien Programa: 92
webgune sei hilabetez ikusgarri izanen dira. .eus domei-
nu-izenarekin. Bigarren fasea Abiarazte-aldia izanen
da eta irailaren 16an hasiko da. Domeinu hau erabili
nahi duten enpresa, elkarte eta erakundeek azaroa-
ren 18ra arte eman beharko dute izena eta abendu-
aren 3an aktibatuko dira. Azken fasean, Fase Irekian,
.eus-en erregistroa publiko orokorrari irekiko zaio.

Nire aukera



Eztebe GASCON
Aranoko mekanikoa

**«Batzuetan irabazle,
besteetan galdu,
ambiente eta saltsa
onean ibiltzen gara»**

Mekanikoa ofizioz eta
baita ere afizioz,
«motorra duen guztia
gustatzen zait. Gehiegil!»
aitortu digu 38 urteko ara-
noarrak. Hori bai motor
hots guztiak berdinak ez
eta «bi erruedakoak, lau-
koak baino nahiago» di-
tu. Askorentzat bezala,
«ostirala» da beretzat as-
teko egunik hobereana,
«lanetik atera eta lasai
ederrean lagunekin eta
neskarekin egoteko au-
kera daukadalako». As-
teburuan ere «denentzat
eta denetarako denbora
hartzen saiatzen naiz»,
tartean «pilotan, mendi-
an, motorrarekin... ibil-
tzea gustuko dut». San-
tioak ate joka, baina «kar-
nabal zaleagoa» izan da
bera betidanik, «egun ba-
karra izaten da baina oso
ongi pasatzen dut, zaha-
giarekin ere atera izan
naiz». Dena den, feste-
tan ez da etxean geratu-
ko. Arano eta goizueta-
rren arteko pilota parti-
dak adi ikusiko ditu urte
mordoxkan berak izan
baitu herria auzoen au-
rrean defendatzeko ardu-
ra «batzuetan irabazle,
besteetan galdu, ambien-
te eta saltsa ona sortzen
da» azaldu digu. Beti gel-
ditzen da gainera erre-
bantxarako aukera.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONAZ-MUGAIRI. Etxebizitza salgai, mogleztatua dago. Bero-gailua, igogailua eta trastelekuarekin. 16 milioi Pta/ 100.000 €. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mogleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mogleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ERATSUN. Hiru borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

BERA. Etxebizitza atxikia salgai. 200 m². 3 solairu, kalitateko materialak, 4 logela, 2 bainugela, garajea (27 m²) eta lorategia (75 m²). 3 autorentzako aparkalekua. 350.000 euro (Prezio negoziagarria). ☎636 880115 (19:00etatik aitzinera).

ARRAIOZ. Baserria salgai edo errentan emateko. ☎609 973306.

DONEZTEBE. 2 logelako pisu zaharberritua

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€** IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

salgai. 15m²ko trastelekua. 120.000 euro. ☎630 160353.

ARESO. Sastizar baserria salgai, 25.000 m²ko lur eremuarekin. ☎649 707584.



ARIZKUN. Etxebizitza salgai. 190 m² eta 6 logela. Bista zoragarriak. ☎646 364846.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

LESAKA. Apartamentua errentan emateko irailaren 15etik aurrera astelehenetik ortziralerara. 2 logela bakoitza bere komunarekin, sukalde eta egongela. Telebista. Kotxea behar da.

Herritik 2 KM. ☎678 855056.

BARAÑAIN. Pisua errentan emateko. Nafarroako unibertsitate-tik eta ospitaletik gertu. 3 logela, komuna, egongela, sukalde eta balkoia. Berritu berria. 520 euro (berogailua barne). ☎635 771694/ 660 928563.

IGANTZI. Etxebizitza errentan emateko, saltzeko aukerarekin. Bi logela, sukalde hornitua, egongela-jangela, komuna, trastelekua, garajeko marra itxia, clima-lit leihoak. Eguzkitsua eta ikuspegi ederrarekin. ☎686 722856.

ELIZONDO. 60 m²ko apartamentua errentan emateko. ☎646 738638.

IRUÑEA. Baztandar baretik ikasleendako pisua errentan emateko UPNAtik 5 minututara. ☎620 209663.

DONEZTEBE. 2 logelako pisu argitsua errentan emateko. Prezioa: 350 euro. ☎667 334139 / 618 834892.

LESAKA. Ote kалан pisua errentan emateko. Berritu berria eta mogleztatua. Ganbara eta bajera ere baditu. ☎661 262531.

BERA. Herri erdi-erdian pisu mogleztatua errentan emateko. 2 gela, sukalde egongela eta bainugela bat. Kalefazio eta igogailuarekin. Autoarendako garaje plaza aukeran. ☎696 843298 (18:00etatik aitzinera).

ETXEBIZITZAK

konpartitzeko

BERA. Etxebizitza konpartitzeko neska arduratsua nahi da, erretzaila ez dena. Auzo lasaia eta egoera onean. ☎662 585965.

ARANTZA
Zurgindegia.....
- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromiso gabe
- Jose Angel Errota
Tel: 948 434 948 - 447 318 144
Gorritze - ARANTZA

GARAJEAK/LOKALAK

salgai

LESAKA. Eltzetako plaza lur azpiko garajea salgai. ☎646 774117.

ZERBITZUAK

denetarik

Neurologian espezializatua den fisioterapeuta eskaintzen da etxez-etekeo tratamenduak egiteko: ictus, Parkinsona, errehabilitazioa, Alzheimerra... ☎659 408555.

LANA

eskariak

DONEZTEBE. Emakumea orduka lanean ari tzeke prest: garbiketa lanak egiten, sukalde languntzaille... ☎673 372938.

34 urteko mutila ostalaritza lanean ariko litzateke. Jangelan, ostatuan... Gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez daki. ☎603 490645.

ELIZONDO, IRURITA, LEKARAZ, GAR-TZAIN. Ikaslea den neska udarako lana bila: haurrak zaintzeko, garbiketa lanak, ostalari-tza... ☎603 371508.

ESKUALDEA. Adineko pertsonak, haurrak, ezintasunen bat duten

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(ekainaren 20tik 27ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 51 € (=)

Zerri gizena
1,455 € kilo. (+0,020)

Zerramak:
0,760 € Kg/bizirik. (+0,010)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,28

1.koa 4,05

2.koa 3,90

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,38

1.koa 4,09

2.koa 3,95

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 120,00

idixkoak 238,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00

idixkoak 160,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 6,30/6,90

8-10 kilokoak: 5,10/5,80

pertsonak zaintzeko pertsona kualifikatua lanerako prest. ☎625 090192.

Mutil gaztea kotxearekin lan bila, Lanbide Heziketa ikasketaduna mantenimendu industrialean eta mekanizatuan. Egur lanak egiteko, desbrozatzan, lora-tegi mantentzeak... ere egiteko prest dagoena. ☎646 633807.

LANA

eskaintzak

ZUGARRAMURDI. Ile-apaindegi batean langile bat behar da, esperientzia duena eta frantsesa dakiena. ☎619 372546.

URDAZUBI. Ikaburuajetetxean, uztailean eta abuztuan langileak behar dira. Zerbitzari bat egunero aritzeko eta pertsona bat igande eta jaiegunetan lan egiteko. ☎948 599222.

BERA. Ibardingo jatetxe batean eguerdiko zerbitzurako sukaldaria behar da. ☎948 631394.

MOTORRAK

tailerrak



MOTORRAK

salgai

Astra gsi salgai, 16v, 2.0, 150cv. Egoera onean, IAT-ITV ekainean pasatua, kubiarta berriak, amortiguadoreak selex eta muelleak eibach, turbo eskapea don silencioso inox, bolantea OMP, llantak TP Valencia r17. Dena homolo-



gatua dago. 200.000 KM. 2.800 euro. Kotxea ikusi eta proba daiteke. ☎600 703288.

SUNBILLA. Remolkea salgai. Hagitz egoera onean eta ehiztariendako aproposa. Neurriak: 100x125x71cm. ☎948 451766.



2001eko **Nissan Almera 2.2** diesela salgai. 108.000 km. Ongi zaindua eta beti garajejan egona. IAT-ITV 2015eko ekainera arte. Prezio interesgarria. ☎691 213207.

Derbi Terra 125 c.c. salgai, 2008koa. 4.500 kilometro. Kutxa eta bi kasko opari. 1.950 euro. ☎677 644650.



ANIMALIAK

oparitzeko

LEITZA. Hilabete eta erdiko 3 zakurkume oparitzeko. Ama ardi zakurra eta atta labrador arrazakoa. ☎948 510224.

Katakumeak oparitzeko. Aita eta ama ehiztari onak. ☎620 447311.

ANIMALIAK

saldu

Border collie zakurkume arrak salgai. Atta eta ama lanean. ☎616 109050.



4 ahari muturgorri salgai. ☎697 440590.



OIHAN ENKANTEA

BERAko Udalak plegu itxiaren bidezko enkante publikoan salgai jarriko ditu Santa Barbara eta Agestenborda parajeetako oihan-aprobetxamenduak.

Proposamenak iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamuniteik hasita 20. egun naturalerako 13:30ak arte aurkeztuko dira.

Baldintza pleguak Udal Idazkaritzan, 012 Zerbitzuan, web-orrian (www.berakoudala.net) eta Nafarroako Kontratazio Atarian ikusgai daude.

Bera, 2014.07.01
ALKATEA,
M^a Sol M. Taberna Iratzoki

DENETARIK

salerosketak

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/699 461394.

ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



ITUREN. Belarra salgai. ☎649 179142 (deitu 19:00etatik aurrera).

Lakunza markako **lurreko sua** salgai, 50x70 neurriekin eta oso gutti erabilia. ☎639 439509.



IGANTZIKO UDALA

DEIALDIA, TAXI LIZENTZIA ESLEITZEKO

Igantziako Udalak erabaki du taxi lizentzia bat lehiaketa baten bidez esleitzeko deialdia onestea.

Baldintza plegua Igantziako Udaleko bulegoetan eskura dago eta argitaratua 2014ko maiatzaren 19ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (95. alean).

Eskaintzak aurkezteko epea 2014ko abuztuaren 29a arte irekia dago.

Igantzi, 2014.06.27 Alkatea, M. Lourdes Ibarluzea Irureta



IGANTZIKO UDALA

IGANTZIKO UDAL HIRIGINTZA PLANA

Igantziako Udalak, 2014ko maiatzaren 22an egindako bileran, aho batez eta legeak eskatzen duen gehiengoan izanik, ondorengo akordioa onartu du:

- 1) Hasiera batean onestea Francisco Javier Chocarro San Martin eta Maria Urmeneta Fernandez arkitektoek egindako Igantziako Udalaren Plan Orokorra eta haren Ingurumen ondorioen Azterlana.
- 2) Lizentziak ematearen etendura, Igantziako udal mugapearen barnean determinazio berriek orain arte indarra izan duen hirigintzako araubidea aldatzen duten eremuetan; hori guztia, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 69.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz. Hirigintza lizentzien etendura hori ez da gertatuko egin nahi diren obrak bi planeamenduen edukiekin bat heldu direnean, hau da, gaur egun indarra duenarekin eta hasiera batean onetsitako Udal Plan Orokorrearekin. Halaber, lizentzien etendura ez da aplikatuko hasierako onestena baino lehen hasiak ziren espedienteak badira; horrelakoei espedientea hasi zen garaian indarra zuen araudia baik ez zaie aplikatuko.
- 3) Igantziako Udal Plan Orokorra, Ingurumen ondorioen Azterlana eta Lurraldea okupatzeko estrategia eta ereduaren (LOEE) agiria, hiruak hasiera batean onetsiak, jendaurrean edukitzea 2 hilabeteko epean, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean argitaratutako egunkarietan argitaratuta, interesdunek, jendaurreko epe horretan, bidezkoak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten; hori guztia, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 70.6 artikuluan eta Ingurumena Babesteko Eskuhartzeari buruzko 4/2005 Foru Legearen 31. artikuluan eta hurrengoetan xedatuarekin bat.

Aditza ematen da, orok jakin dezan
Igantzi, 2014.06.27
Alkatea, M. Lourdes Ibarluzea Irureta

t tipi-ttapa

etxera bidaltzea nahi baduzu, deitu telefono honetara:

(0034) 948 63 54 58 · www.ttipi.net



urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,37€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Uztailaren 7an **NAHIAK** 7 urte egin ditu. Mila muxu aita eta amaren partetik.



Aunitz urtez **ARO!** Arantzako neska polit honek uztailaren 19an urtea beteko du. Muxu haundi bat Oier, Enea, Ainere, Alaitz, Ane, Ioritz, Intza, Beñat, Udane eta Elaiaren partetik.



Zorionak Sunbillako **ANE MIGELTORENA MUGIKARI** uztailaren 10ean bere eguna delako! Bereziki aita, ama, Aimar eta base-rikioen partetik. Bazkaria izebaren kontu, postrea zuk ekartzera espero dugu. Muxuak!



Leitzako **NAROA** eta **UXUE MARIEZKURRENA ALDUNTZINEK** 7 eta 5 urte beteko dituzte uztailaren 4 eta 13an. Zorionak eta muxu haundi bana familia guztiaren partetik bereziki Saioa, Iera, Irati eta Nerearen partetik.




Sarriguren eta Berako **JAVIER LASARTE LACAR** eta **MADDI LASARTE BARREDOK** 5 eta 3 urte beteko dituzte abuztuaren 23 eta uztailaren 17an. Zorionak eta muxu haundi bana Berako familien partetik.



Zorionak Lesakako **IDOIA** eta **AITZIBER IRAZOKI BENGOTXEARI**. **AITZIBERREK** ekainaren 30ean 15 urte bete ditu eta **IDOIA** uztailaren 5ean 17 urte. Muxuak Sunbillako familieren partetik eta bereziki zuen lehengusu Pablo Irazoki Olaizolaren partetik.



Uztailaren 3an Labaiengo **MARIA TELLETXEA ITURRALDEK** 14 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat familieren partetik.



Lakuntzako **AITZOL SAN SEBASTIAN ARRAIZAK** bost urte beteko ditu uztailaren 27an. Ongi pasa eguna eta musu pila pila bat familieren partetik.



Arantzako **IRATI AZPIROZ ERRANDONEAK** uztailaren 7an 9 urte bete ditu. Zorionak preziosa! Muxu goxo-goxo bat zure aita, ama eta anaia Beñaten partetik.



IRENE PETRIRENK 33 urte beteko ditu uztailaren 12an. Zorionak attaren partetik eta muxu haundi bat Enaitzi.



ANTON IPARRAGIRRE ITURZAETAK urteak bete zituen uztailaren 2an. Muxu haundi-haundi bat etxekoan partetik. Aunitz urtez txirindulari!




PELLO APEZETXEA jauna Etxalarko apezari eta Sunbilla-Urdazubiko **PABLO IRAZOKI OLAIZOLARI** zorionak ekainaren 29ko partez, zuen santua zelako. Paul eta Aliziaren partetik. Milesker aunitz **PELLO** jauna.




Haunditzen, haunditzen, ari dira haunditzen etxeko tikiak! **XABIER ABRIL RAMA** eta **NAROA OTAMENDI ABRIL** lehengusu-lehengusinek urteak beteko dituzte. Xabierrek 2, uztailaren 9an, eta Naroak 9, uztailaren 26an. Zorionak ataxi, amaxi eta izeba-osaben partetik. Prestatu berendu goxua eta belarriak!



Zorionak Arantzako **XIKER SEIN ARDANZARI!** Uztailaren 6an 3 urte bete dituzu. Zorionak familieren partetik! Maite zaitugu bihurri!



Zorionak Berako **OIHAN TELLETXEA IRIARTERI**. Ekainaren 30an 6 urte bete ditu. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



Zorionak **ANER**, gure etxeko trasto tikiari eta muxu haundi bat attatto, amatto eta bereziki Oskitz eta Alain anaiaren partetik.



Zorionak **ANER!** Berako ondozale tikiari urteak beteko ditu uztailaren 24an. Ongi pasa eguna ataxi eta amaxiren partetik.



Sunbillako **JULEN LAZKANO ALZURIK** 6 urte beteko ditu uztailaren 16an. Zorionak eta muxu asko Leitzako eta Sunbillako familia guztiaren partetik, bereziki bere arreba Oihaneren partetik. Ongi pasa eguna. Zorionak!



Iruñeko **KEMEN ETXEBERRIA GARRAUSEK** 9 urte beteko ditu uztailaren 23an. Zorionak gure muttiko, muxu pila amaxi eta aitaxiren partetik. Ongi pasa eguna!



Aunitz urtez **ENERITZ!** Sunbillako sevillana polit honek uztailaren 10ean 5 urte beteko ditu. Muxu bat familia eta batez ere Aurke-neren partetik.



Arantzako **ARO MIKELARENA TABERNAK** uztailaren 19an bere lehenengo urtea beteko du. Zorionak Sunbillako ataxi, amaxi eta Doneztebe osaba-izebaren partetik. Baina bereziki muxu handi bat bere lehengusu Nahia eta Aimarren partetik. Ongi pasa eguna *pexoxa!*



Sunbillako **MAREN IRIGOIEN ARRETXEAK** 4 urte beteko ditu uztailaren 20an. Zorionak familia guztiaren partetik. Muxu haundi bat moñoña.

ZURE HERRIKO BESTETAKO KARTELAK

89€

50 kartel A3 (30,3cm x 42,6cm)
Koloretan + 135g + Diseinua + Inprenta + garraioa
BEZa barne + Epea: 10 lan egun

Kaskontako bidea, 7 - 1 | 31770 LESAKA
T. 948 635 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net



benta berri
JATETXEA • Ibardingo gaina • BERA
T. 948 63 07 08

ETORRI IBARDINERA **BERAKO** **BESTAK** GUREKIN OSPATZERA

BESTETAKO MENUAK:

25€

edo

35€

GARRAIO ZERBITZUA

MENDIKO

SAGARDOTEGIA • EURETEGIA • JATETXEA



T. 948 63 03 02

Ibardingo gaina • BERA • Nafarroa

www.mendikoibardin.com



Mendiko

ttipi txartela

MENEMENAGARRIEN MUNDUE
20072114-6
04/2014
12/2016

ttipi
txartelarekin
beti irabazten da !

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MJSUTRIUK

~%25eko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koakontako bidea 7 LESAKA
T: 948 635 458 - F: 948 635 457
info@ttipi.net
www.ttipi.net

ZOZKETAK

617 ALEKO IRABAZLEAK

KAMISETA BAT | Onin Art

ANGEL BERTIZ | ELIZONDO

2 LIBURU | Elkar

Zure denbora truke | JAIONE ELIZAGOIEN | ELIZONDO

Zure denbora truke | JOKIN APEZETXEA | DONEZTEBE

BERRIA EGUNKARIA HILABETE 1eko HARRPIDETZA

ONINTZE ZINKUNEGI | ETXALAR

2 SARRERA | Irtisari Land

NEKANE UNSION | LEGASA

2 SARRERA | Sorginen Leszak

ARANTXA GEREÑO | PASAI DONIBANE

2 SARRERA | Aquarium

KONTXI ETXAMENDI | ELIZONDO

1

KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com



2

TXOKOLATE LOTEA
Arkupe Gozotegia
www.arkupegozotegia.com



3

3 LIBURU
Zonbi mutanteen gaua
Ibaizabal
www.ibaizabal.com



4

TXANTXARIAK DVDa
Urtxintxa eskola
www.aizia.net



5

2 SARRERA
Irtisari Land
www.irtisariiland.com



6

2 SARRERA
Donostiako Aquariuma
www.aquariumss.com



DESKONTUAK

DATUCELAY



ELIZONDO SEAT
%10 batera eta amortiguadoretan

Maro Cruz
LENTZERIA

DONEZTEBE | ELIZONDO
%10, 30etik gorako gastuan

JUAN J.
PICABEA
DONEZTEBE
%10, marka batzuetan ezik

EZ Zaldia
LANTZERIA

DONEZTEBE | ELIZONDO
%10 produktuetan



POSADA
OITZ

OIZ
%10eko deskontua



intzuri
OPTIKA

LESAKA
%10 produktu guztietan